

uk

125. zenbakia / 2007 urriak 8





# ANTZERKIA

Getxo 2007 / Urria (12-21)



bbk =

info@getxokultura.com  
944 91 40 80

## Non zer

- 4. GU GEU.
- 5. IRUDIA. Erdi aroko azoka. Asier Mentxaka.
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Villamonte.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 11. ERRETRATUA. Xabier Pujana.
- 12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- 25. AGENDA.

### SAKONEAN

- 26. ALBUMA. Karidadeko Benta, Jose Mari Martinez *Bubu*.
- 28. ARGAZKIA. Asado en Mendiolaza, Marcos Lopez.
- 30. BERBETAN. Alejandro Castellote, Irantzu Sagaminaga.
- 34. FOTOGRAFIA. Getxophoto, Asier Mentxaka.

### KULTURA ETA AISIA

- 42. ZINEMA. Donostiako Zinemaldia.
- 43. MUSIKA. Udagoieneko uzta. Diskoen erreseinak.
- 44. LIBURUAK. Literatura unibertsala euskaraz. Liburuen erreseinak.
- 45. KIROLAK. Arkote Arraun Taldeko Juan Carlos Gemika.
- 46. ELKARRIZKETA. Amaia Nerekan.

### AMAITZEKO

- 49. NORA JOAN?. Adibidez, Erandioko La Centralitara.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. Ondarreta abesbatza, 1976. Bittor Egurrola.
- 54. AITORMENAK. Roberto Moso.



**Berbetan**  
Argazkigintzan aditua, nazioartean pertsonalitate aitortua. Getxophoton ikusi ahal izan diren lan gehienak berak ekarri ditu gurera.

www.aek.org

euskara  
zure gaitasuna

URIBE KOSTAKO AEK 94 430 47 34

aek  
coach berri

## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILA: Boluntzarreta Elkartea

HELBI BIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO  
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171  
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagarminga, Ander P. Goikoetxea,  
Maitane Nerekan

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Inge Beitia

KOLABORATZAILAEK: Unai Brea, Bittor Egurola,  
Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Amezagua, Itasso Arana,  
Gaizka Escudero, Xabier Paya, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra  
Lepoan Euskaraz Elkartea.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko  
herri aldizkari eta euskaraz elkarrean  
Topaguneko partaidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILAK



gugeu

# Atzera

Aurreko astean eskualdeko herrietako jaietan gertatutakoa batzen zituen ale berezia eta gero, uda osteko lehenengo ale arrunta duzu hau irakurle. *“Berandutxu zabiltzate!”* esan digu batek baino gehiagok. Egia da, eta barkatu enredoak. Kontua da -askok entzun eta ikusiko zenuten- **Getxophoto** jaialdiaren antolaketan burubelarri beharrea eman dugula uda osoa eta horrek aste pare bateko atzerapena eragin digula. Esan bezala, barkatu eragozpenak.

Getxophoto fotografia jaialdiaren inguruko berri bat baino gehiago aurkituko duzue zenbaki honetan. Adibidez, *Berbetan* atalera edizio honetarako argazkiak aukeratu dituen **Alejandro Castellote** komisarioa ekarri dugu. Fotografia atala, jaialdiaren espiritua islatzen duten irudiekin bete dugu. Bestetik, erdiko orrialdean, jeneralean eskualdeko argazkiak ipintzen baditugu ere, ale honetan Getxophoton ikusi ahal izan den lan ederra paratu dugu: **Marcos Lopez** argentinarraren *Asado en Mendiolaza*.

Esandakoa, atzera itzuli gara.

UK-ko lantaldea

## matematika aplikatua



Gorka Vázquez

## jakingarri > olhares do morro



Rio de Janeiroko faveletan badago Olhares do Morro (goiko begiradak) izeneko ekimen bat. Hango gazteei, irtenbide profesional bat eman nahian, argazkilaria izateko irakasten zaie Olhares do Morro lantegian. Euren lanak Getxophoton ikusi ahal izan dira.

Argibide gehiago: [www.olharesdomorro.org](http://www.olharesdomorro.org)



GETXO, 2007KO IRAILAK 21

**Erdi Aroko kazetariak?** / Azken boladan han eta hemen antolatzen dituzte kultur eragileek Erdi Aroko Azokak. Ikusgarriak direla ezin ukatu, baina zalantza ere sortzen da: Euskal Herriko herritarrek Erdi Aroan horrela bizi ziren? Ondo irudikatzen al dute Azoka horiek gure herriaren garai hura? Bestalde, kazetari bat ei da irudiotan duzuen, albistean barneratzeko asmoz mozorratu dena. Eta horrek ere galdera eragiten du: zenbat kazetari-aktore ete dabilta garaiotan? / Argazkia: **Asier Mentxaka**



Proiektu berria  
Getxoko familietan  
Euskara sustatzeko

### GURASOLAGUNA

amak & aitaek euskaraz ezagutu

Euskara praktikatzeko taldeak antolatuko ditugu ikastetxeetan, goizez edo arratsaldez, astelehenerdik ostiralera. Ordutegia eta lekua gurasoek beraien aukeratzeko dute. Talde bakoitzean euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak egongo dira eta 4-6 gurasok osatuko dute taldea.

Arratsaldeetan begirale zerbitzua eskainiko da umeak zaintzeko gurasoak kafea hartzen, parkean edo pabean berbetan ari diren bitartean.

Zure seme-alabak 2-12 urtekoak badira eta gubierneko euskara maila baduzu proiektu hau zuretzat da. Animatu eta etorri gurekin!

### GURASOAK LAGUNDUZ ikastaroa\*

Aita eta ama askok, euskaraz jakin arren, arazoak izaten ditugu umei etxeko lanetan laguntzerakoan: hiztegia, gaiak nola azaldu, etab. Ikastaro honen helburua ez da euskara irakastea baizik eta guraso euskaldunei edo zerbait dakizuenoi (euskaltegiko 5. urratsa) trebakuntza ikastaro berezia eskaintzea, umeen etxeko lanak ulertzen eta egiten laguntzeko.



Karitatea 1/10 48991 GETXO ☎ 73 29 63  
[www.blogari.net/sendi](http://www.blogari.net/sendi) - [sendi@getxo.net](mailto:sendi@getxo.net)

\*biardun 16an hasiko da, 90 orduko ikastaroa, astelehenetik ostegunetan, 10:00-11:30 edo 18:00-19:30, 40 euro. Getxoko euskaltegian, izena eman ondoren. 5era arte. Begirale zerbitzua duen arratsaldez umeak zaintzeko gurasoak ikastaroan dauden bitartean.

[lehen]



GETXOKO UDAL LEBURUTEGIA

[orain]



ASERMENTXAKA

## Iraganez doa denbora\* beti / ALGORTAKO VILLAMONTE

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

**uribitakora** > *bertsophotoko* karreteiaSustrai Colina Juan Luis Markaidaren argazki bati kantatzen Algortako frontoian, Getxophoto barruan antolatutako *Bertsophoto* saioanTestua: **Xa2 Paya** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

**NEGATIBOA**  
Argazkiei bertsokak  
eranstea da lar,  
zertan elkartu astro  
berean bi izar?  
Nahiz bertso baten hitzek  
izan mila indar,  
argazki onak ez du (bis)  
oin-oharrik behar.

**ERREBELATUA**  
Erretratua, hitza,  
begia, mingaina,  
elkarren lagun eta  
etsai alajaina!  
Irudi bat ez ei da  
mila berba haina,  
hitz batek mila irudi (bis)  
sor lezake baina.

**ERREBELAZIOA**  
Bertsophoto izan zen  
denon ezusteko,  
aukera eman zigun  
zerbait ikasteko:  
Belarriak jarrita  
begien antzeko  
hitzek balio dute  
bista hobetzeko,  
ikusi ezin dena  
ikusarazteko.

\* Doinua: Laguna eskaiozu

**BASALBO BASERRIA  
JATETXEA**MARTITURRI ESTARTA 18 / 48993 ANDRA MARI - GETXO  
TEL./FAX: 94 491 34 91 / BASALBOBASERRIA@YAHOO.COM**bisita** > Ander Deuna Ikastolako umeak UK-n

Argazkian, Ander Deunako umeak

**Joan den** irailaren 13an, Ander Deunako DBHko lehenengo mailako umeen bisita eduki genuen gure erredakzioan. Ikastolak Urtxintxa eskolaren laguntzarekin antolatzen duen *Murgiltze astea* dela eta, eskualdeko hainbat komunikabide eta elkarte euskaldun bisitatzen ari dira. Hortaz, aldizkaria zelan egiten den bertatik bertara ikusteko aukera eduki zuten gure bisitariak, baita zeuzkaten zalantza guztien erantzunak jasotzeko ere. Lan-taldeko kideek emandako azalpenen bidez, informazioa non bilatzen den, albistea zelan idazten den etab. jakin ahal izan zuten gazteek. Halaber, eguneroko jardunean ematen diren hainbat bitxikeriaren berri eduki zuten. Azalpenen ondoren, eta gure bisitariak ohitura denez, erretratua egin genien alde egin aurretik. Espero dugu azalpenak argi gelditu eta euskararen erabat murgildu izana. ○

**filatelia** > Gorlizko itsasargia Correos-eko zigilu garestienetan

Argazkian, Gorlizko itsasargia; goian, zigilu berria.

**Correosek** Gorlizko Itsasargiari buruzko zigilua argitaratu du, estatu mailako itsasargiei buruzko oroipen bilduma baten barnean. Grabatua eta bertikala izango da eta 28,8 x 40,9 mm-ko neurria izango du. Bilduma horretan beste bost zigilu daude eta guztira milioi erdi ale argitaratuko dira. Gorlizko zigilua garestiena izango da, 2,43 eurotan salgai egongo da eta. Itsagizon zein herritar askoren bizitzetan garrantzi handia izan dute itsasargiek. Mendeetan zehar, itsasontzien bideak argitzen egon dira; gaur egun, domeketan zapatilak jantzita paseoan irteten diren gizon-emakume askoren helmuga dira. Correos erakundeak honelako eraikuntza eta itsasargien omenezko bilduma egitea erabaki du, hauek mendeetan izan duten garrantziagatik. Beraz, mundu osoko filateliazaleek Gorliz ezagutzeko aukera izango dute. ○

**saiazgetaria**HOTELA  
Roke Deuna 25  
280808 Getaria  
Gipuzkoa

...harria



...lehenago garaiak...



...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

[talaia]

## internet > Euskaltube euskarazko ekimen berria sarean



**Youtube arrakastatsua** oinarri hartuta, Interneteko euskal bideo-sormenaren erreferente nagusi bilakatu nahi duen *Euskaltube.com* webgunea martxan jarri dute. Nahi duenak bere bideoak eskegi ahal izango ditu bertan, munduko edozein tokitan dauden euskaldunek ikus ditzaten. Guneko arduradunak, Haritz Rodriguezek, prentsa ohar batean adierazi duenez, *“euskal gizarteak Web 2.0 tresna propioak erabili ahal izateko duen beharretik sortu den proiektua da”*. Euskaltubek berebiziko garrantzia emango dio euskarari eta guneko eduki guztiak euskaraz eskaintzeko konpromisoa hartu dute proiektuaren bultzatzaileek. Hala ere, beste edozein hizkuntzatan egindako bideoek lekua izango dute webgunean. *“Herri kazetaritza”* delakoari ere garrantzia eman nahi diote: *“Gaur egun, edonork harrapa dezake bere telefono mugikorarekin edo etxeko bideokamerarekin lekuko gisa ikusi duen egunerokotasuneko gertakari bat. Herritarrek grabatutako edozein bideo informazio iturri bilaka daiteke”*. ○

www.euskaltube.com

## turismoa > sarerako Uribe Kostako gida sortu du Mankomunitateak



**Uribe Kostako Mankomunitateak** sarerako eskualdeko gida turistikoak sortu du. Artea, jaiak, kirola, hondartzak... esparru ezberdinetako informazioa aurki daiteke *www.uribekosta.org* helbidetik deskarga daitekeen gidan. Bisitariak erosotasunez mugitu ahal izateko beharrezkoak dituen telefono eta helbide guztiak ere biltzen ditu: jatetxeak, hotelak, zerbitzu publikoak... Gainera, Plentzia, Gorliz, Lemoiz, Sopela, Urduliz, Barrika eta Berangoko herrien planoak ditu. Gida osoa argazki ederrez hornituta dago, Plentziako itsasadarrarena eta Billano irlakoak, besteak beste. Herrietako txoko esanguratsueni buruzko azalpenak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita daude. Honez gain, Euskal Herriko beste eskualde batzuen gaineko azalpenak aurki daitezke. ○

Goizaldea Barrikan



[erretratua]

“Jendea txapelketetara joateko prest egoten da, baina ez entrenamenduetara joateko”, dio Xabier Pujanak

## Xabier Pujana > Getxo Herri Kirolak taldeko kidea

**Gaztea den arren** (32 urte), oso ezaguna da Xabier Pujana Barrikan: *“Amak herrian dagoen denda bakarra dauka eta, agian, hor ibiltzen naizelako izango da”*. Gehienek Barrika ezizenarekin ezagutzen dute, bertokoa da eta: *“Sokatiran hastean ipini zidaten”*. Herriak azken urteotan bizi izan dituen aldaketei buruz hitz egin digu: *“Lehen baino zarata gehiago dago orain; etxe asko eraiki dituzte. Hala ere, bizirauten dugu”*. Gustuko duena egin ahal izateko inguruko herrietara hurbildu behar du Xabik: *“Herrian ez dago gauza handirik egiteko; gainera, kirola praktikatzeko mugitu egin behar dut. Getxo Herri Kirolak taldeko kidea da eta herri arteko sokatira txapelketetan parte hartzen du: “Datorren urtean txapelketa bat dago Belgikan. Niri joatea gustatuko litzaidake, baina ez dugu taldea sortu. Jendea txapelketetara joateko prest dago, baina ez entrenamenduetara joateko”*. Urdulizko Haitzepe taldean hasi zen tiratzen orain dela 13 urte: *“Lagun batekin joan nintzen lehen aldiz eta asko sufritu nuen. Masokista izango naiz akaso, baina asko gustatu zitzaidan”*. Osasunerako ezinbestekoak ditu herri kirolak: *“Honetan ibiliko ez banintz 20 kilo gehiagorekin egongo nintzateke etxeko sofan botata”*. Amaitzeko, proposamen bat Uribe Kostako emakumeentzat: *“Ea baten bat animatzen den, taldean batek baino gehiagok eskertuko luke”*. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

**cianoplan Reprografia**  
global printers

Villa de Plentzia 6. zbk  
Antiguo Golf - Getxo  
Tlf. 944 649 087  
944 648 691  
http://www.cianoplan.es

- Imprimatze eta plano kopiak
- Kartelak kolorez eta z/b
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua
- Fotokopiak kolorez eta z/b
- Era desberdinetako koadernaketak
- Plastifikazioak
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak
- enmarkaketak



# Andra Mariko lurrak

**Komunikabide** askotan ikusi ahal izan dugu **Getxoko Udal Taldeak atzera bota duela** Andra Marirako iragarritako 8.000 etxebizitzaren proiektua; baina, zein da proposamen berria?

Udal gobernu taldeak irailaren 28an egin zen osoko bilkuran Hiri Antolaketarako Plangintza Orokorra (HAPO) berraztertze prozesua hastea proposatu zuen. Dokumentu berria egungo legediari egokitu behar zaiola aurreratu du Imanol Landak, LZP (Lurraldeko Zati-Plana) eta EAEko eta Estatuko Lurzoruaren Legeak errespetatuz.



Getxoko Goierri

**Uztaila amaieran** iragarri zuen Imanol Landak Andra Mariko lurretan 8000 etxebizitza eraikitze proiektua bertan behera uzteko erabakia eta hau herritarrei agindutakoa bete nahian hartu duela azaldu zuen. Ezker Batua, egitasmoaren bultzatzaile nagusienetako bat izanda, ez da ados agertu erabakiarekin, baina gobernu taldeak aurrera egin du. Dena den, lan handia dago oraindik, izan ere, 2001ean onartutako proiektua gaurkotu behar dute.

Pasa den hilaren 28an egin zen osoko bilkuran Hiri Antolaketarako Plangintza Orokorra (HAPO) berraztertzea proposatu zuen Imanol Landak. Hau Euskal Autonomia Erkidegoaren Lurzoruaren legearen, Bilbao Metropolitanoaren Lurralde Zati-Planaren eta Estatuaren Lurzoruaren legearen irizpideen arabera egin behar da. Irailaren 14an kaleratutako prentsa oharren arabera, gobernu taldeak batzorde bat osatu nahi du Udalean ordezkariak dituzten alderdi politikoekin eta udal teknikariek. Honez gain, auzokide elkarteekin eta gizarte-eragileekin harremanetan jartzeko asmoa daukala aurreratu du Imanol Landak.

EAE-ANV eta Berdeak alderdietako lagunek batzorde honetan parte hartzea ukatu zaiela salatu dute. Hala ere, "bazterkeria guztien gaitetik, Andra Marirako eta Getxo osoko hirigintza plangintza soziala eta jasangarria eratzeko lanarekiko konpromisoa" adierazi dute.

**«Babes ofizialeko etxeen eraikitzea ez dela etengo ziurtatu du Imanol Landak»**

Getxoko alkateak "Hiri Antolaketarako Plangintza Orokorra berraztertze prozesua luzea izango dela" aurreratu du. Halaber, babes ofizialeko etxeen eraikitzea ez dela etengo ziurtatu du. 2010. urtea izango da HAPO berraztertze epearen muga. Ekipamendu publikoak, berdeguneak, bideak eta etxebizitzak zelan banatu zehaztu beharko du egitasmo berriak.

Oposizio alderdiak ez dira ados agertu

proposamen berriarekin. Aipatutako EB, EAE-ANV eta Berdeen arranguez gain, PPK eta PSOEk mozio bateratua aurkezteko asmoa kaleratu berri dute. Izan ere, azken bi hauek Bizkaiko Foru Aldundiak Lurralde Zati-Planean proposatutako garapen urbanistikoa-ekin bat ez datozela argi utzi dute. Marisa Arrue PPKo ordezkariaren hitzetan: "LZPk Andra Mariko lurretan 8000 etxebizitza eraiki behar direla zehazten du. Zerbait egin behar dugu hau gerta ez dadin!". Alderdi Popularrak bozeramailearen arabera, HAPO aldatzeko eraturako batzordeak libreaki lan egin behar du, LZPren menpe egon barik. Mozioa aurrera aterako da, izan ere, PP eta PSOE alderdiak batuz gero, gehiengo absolutua lortuko lukete. Luis Almansa sozialistak, LZP orientatzeko tresna bezala erabili behar dela esan du, azken erabakiak Udalen esku egin behar direlarik. ○

## Jabekuntza eskola

Ikastaro berriak eta leku gehiago egongo dira aurten



Emakumeen partaidetza soziala eta politikoa bultzatzeko helburua du egitasmoak

**Jabekuntza Eskolak** 2007/2008 ikasturteari hasiera eman dio. Laugarren urtea du aurtengoa eta aurreko urteko eskaintza hobetzen ahalegindu dira antolatzaileak. Ermua, Basauri, Ondarroa eta Getxoko Udalek elkarlanean sortutako egitasmoak emakumeen partaidetza soziala eta politikoa bultzatzea du helburu. Aurten, 180 plaza eskainiko dira, iaz baino 36 gehiago, 12 ikastarotan banatuta. Ardatz nagusiak emakumeen nortasuna eta subjektibotasuna, komunikazioa, feminismoa eta elkartasuna eta munduko emakumeekiko trukea izango dira.

Ikasturte honetarako berrikuntza nagusia haurtzaindegi zerbitzua izango da. Keltse Eiguren Getxoko Udaleko Aukera Berdintasunerako zinegotziaren arabera, haurtzainde-

gia "emakumeek bezkuntza eta familia batera ahal dituzten" jarri da martxan. Ikastaroak Algorta eta Itzulbaltzeta/Erromoko kultur aretoetan, Aldai Patronatuan eta Fadura institutu- tian izango dira.

Ikastaro berrien artean "Topaketa kontatuz" azpimarratu zuen Idoia Eizmendik, Getxoko Udaleko Berdintasun Teknikariak, literaturaren bitartez erbeste, bidaia, migrazio eta egokitze prozesuen esperientziak ezagutzeko tailerra. Aurreko ikasturtean izan zuten arrakasta ikusita, "Jende aurrean hitz egiteko teknikak" eta "Nitasun femeninoak" tailerak errepikatu-ko dira. Ikastaroetan Getxon erroldatuta dau- den emakumeek soilik eman dezakete izena. ○

Informazio gehiago:  
94 466 01 30 / ieizmendi@getxo.net

## EMAKUME ETORKINEN TOPAKETAK

Getxoko emakume etorkinentzako lantegiak antolatu dituzte Getxoko Udaleko Berdintasun eta Immigrazio arloek urriaren 13tik ekaina bitartean. Etorkinen estresari aurre egiteko estrategiak, kultur girora egokitze ahalmenak, arrisku harremanak prebenitzeko teknikak edo astialdia eta sexualitatea dira hauetan landuko diren gai batzuk, beste askoren artean.

Informazio gehiago: 650 017 949

## MERKATARITZAN EUSKARA SUSTATZEKO EKIMEN BERRIA

Getxoko Udalak 3 ekimen berri aurkeztu ditu, merkataritza sektorean euskara sustatzeko helburuarekin. Alde batetik, "Buscas casa edo etxe bila zabilta?", higiezin agentzietan euskararen erabilera sustatzea helburu duen CD interaktiboaren 150 kopia banatuko ditu. Bestalde, "Eskerrik asko euskaraz eskatzeagatik" lemapean, 400 ezpainzapi-ontzi, 200.000 ezpainzapi eta 2.000 ontzi-azpiko banatuko ditu. Honez gain, bezeroak euskaraz atenditu ahal izateko oinarriko ikastaroak antolatu ditu.

## ALBEREN IKASTURTE BERRIA MARTXAN

Algortako Bertso Eskolak ikasturte berriari hasiera eman zion urriaren 2an. Aurten bertsolaritzan inongo esperientziarik ez duen jendearentzako ikastaroa antolatu dute. Parte hartu nahi duena, Aldai Patronatura hurbil daiteke asteartean 8etatik 10etara.

## "AISA", ETORKINEI EUSKARA HURBILDUZ

AISA, etorkinei euskara hurbiltzeko ikastaroak, martxan jarri ditu Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak. 16 urtetik gorako atzerritarrentzat dira. Aurten, Europar Batasuneko herrialdeetatik heldutakoek ere hartu ahal izango dute parte.

**SAN INAZIO**  
**AUTOESKOLA**  
1951n SORTUA

LCC - A1 - A - B - BTP  
**baimenak**

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45  
**ALGORTA**

**Garaizar**  
*berrikuntzak*

- igeltzeritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

tel: 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net  
Illeta kalea 1 • ALGORTA

**Arasa**

Sukalde eta Komunetarako Ekipamendu Osoa  
Barnekaldeen zaharberriak eta dekorazioa

Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta  
Tel/Fax: 94 430 11 91

**Gina Valor** > Ukrainiko ume baten abegi-familia getxoztarreko kidea

“Oraindik han badago erradioaktibitatea, guk oporraldi sanoa eskaintzen diegu”



Mendiburu-Valor sendia Vlatyslavegaz aurtengo udan

**Lehenengo aldia da Mendiburu-Valor familiak ume ukrainiar bat etxean hartzen duena. Txernobil elkartearen bitartez etorri da Vlatyslav Krayevskiy (8 urte egiteko) Algortara udara pasatzera; Mikel, Gina eta bere seme-alabak Eider eta Unaigaz eman zituen bi hilabete Portu Zaharreko kaleetan, hondartzan, jaietan... iraila hasieran bueltatu zen Ukrainira, datorren urtean itzultzeko gogo itzelakaz.**

—Zelan animatu zineten?

—Sopelako lagun batzuek ume bat dakarte urtero, euren bitartez ezagutu dugu Txernobil elkarte. Hala, egun batean batzar batera hurbildu nintzen, euren beharrak hainbeste zirela eta guri egindako eskakizunak hain gutxi zirela ikusita, bada animatu ginen. Oso kontzientziatuta ere egon behar duzu: ez da jolasteko dakarzun umea, beste kultura bat duela ulertu behar duzu, beste hizkuntza bat, bere familia eta gurea oso desberdinak direla, gure haurrek eta geuk ere ondo hausnartu beharrekoa da. Baina pozten gara egin izanaz, eta errepikatuko dugu. Vlatyslav oso ondo egokitu da eta gu ere bai,

mutil jatorra da, ondo hezia. Hori bai, umea da eta nire seme-alabakaz neba-arreba bat legez haserretu da, baina eurek egin beharreko gauzak ere egin ditu, mahaia ipini...

—Hizkuntza oztopo handia izan ahal da?

—Seme-alabek euskaraz egiten dute; berak gaztelarazko 4-5 berba zekizkien, baina euskara ahalik eta gehien ikasten ahaletzen da. Elkar ulertzeko ez dugu arazorik eduki. Apur bat erotuta ibili zen, amak Espainiara zihola esan ziolako eta nire alabak “hau Euskal Herria da”. Azaldu genion mapagaz eta: “zu zer zara errusiara ala ukrainarra?” eta berak harro “ukrainarra!”, orduan erdi-ulertu zuen. —Berton daukagun guztia erakutsi ostean,

bere herrira itzuli behar izateak...

—Zalantza hori izan nuen nik ere! Elkarteko erantzunak zelanbait balio izan zidan. Ume honi bere gurasoek eman ezin dioten oporraldia eskaintzen zabilta; oraindik orain han badago erradioaktibitatea, eta udan beroagaz nabariagoa da. Irteteko gaitasuna daukaten familiak alde egiten dute udan, baina hauen familiak umilenak, behartsuenak dira eta ezin dute. Mentalizatuta datoz, argi dute indarra hartzera, sasoiari jartzera datozela, ondo-asko jatera. Edalontziko ur dena edan behar zuela uste zuen Vlatyslavek! —Familiak formakuntza jasotzen duzue? —Zelanbait bai. Halere, badira eskatzen

**«Ume hauek beste gabetasun batzuk badituzte, baina maitasunezkoak ez»**

duzen guztia erosten dietenak, eta gurek legez dena gura dute. Zure eginkizuna da azaltzea zer eros daitekeen, baina hori zeurei ere irakatsi behar diezu. Elkartetik esaten dizute eman behar diezuna dela jateko osasuntsua, maitasuna, aire garbia... Baina, barne borroka ere izaten duzu: nik eskatzen duena eman ahal badiot? Azkenean irabazten duzu, heziketa kontua ere badelako. Ume hauek beste gabetasun batzuk badituzte, baina maitasunezkoak ez, hori argi dago.

—Elkartearantz aholkuren bat?

—Aireportuan ematen duten ordu kopurua itzela da; gero, umeak zenbaki batez zintzilik errenkadan ikustea ere gogorra da. Baina ez ei dago beste modurik. Bestalde, justua bada ere, datorren urtean ezin badugu umea ekarri, ezingo luke etorri, itxaron zerrenda luzea dago, bera azkena litzateke. Bidaia ordaintzen laguntzeko beste bideren bat ere topatu beharko lukete; laguntzaren bat eman beharko lukete erakundeek... o

## Antzerki Jardunaldiek

**Urrezko ezteiak** betetzen dituzte eta, ohi legez, antzerkiaraz gozatzeko egitarau zabala prest dago



Euskarazko hainbat emanaldi egongo dira

**Getxoko** Antzerki Jardunaldiek 25. urteurrena ospatuko dute aurten eta Kultur Etxetik jakinarazi dutenez, “haur eta helduentzako antzerkia, euskaraz eta gaztelaniaz, kale-antzerkia italiar erenako, komediak eta dnamak, obra klasikoak eta ganiak...” egongo dira ikusgai urriko bigarren (hilak 12, 13 eta 14) eta hirugarren (hilak 19, 20 eta 21) aste akabuetan Getxon. Guztira 13 bat antzerki lan egongo dira gozagai (batzuk bi hizkuntzatan) Getxo Antzokian (GA), Andres Isasi Musika Eskolan (AIME) eta Algortako Geltoki plazan (Gp) lekutuko dituzten antzertokietan. Hala, hurrengoak dira emanaldiak: *Cueva de lachrones* (Kanpingags; hilak 12, 20:00, GA; gaztel.), *Birusak erasoan* (Toni La Sal; hilak 13, 12:30ean gaztel. eta 18:00etan eusk, AIME), *Gondola Misteriosua* (Gorakada; hilak 13,

13:00, Gp, eusk), *Mujeres en sus camas* (Tantaka; hilak 13, 20:00, GA, gaztel.), *Katuska Hegalaria* (Deabru Beltza; hilak 14, 12:30ean gaztel. eta 18:00etan eusk, AIME), *Filamento del farolero* (Xabi Larrea; hilak 14, 13:00, Gp), *Bota patsa* (Txalo; hilak 19, 20:00, GA, eusk.), *Rosi Erosi* (Behibi's; hilak 20, 12:30ean gaztel. eta 18:00etan eusk, AIME), *Kanpanolue* (Eidabe; hilak 20, 13:00, Gp, eusk.), *Demasiado humano* (Trapasos; hilak 20, 20:00, GA, gaztel.), *Txintxilipundi Erregea* (Panta Rhei; hilak 21, 12:30ean gaztel. eta 18:00etan eusk, AIME), *Rum Rum* (Poxpolo, Mokolo eta Konpainia; hilak 21, 13:00, Gp, eusk.). Getxo Antzokiko emanaldiek 7/9 euro balio dute, Musika Eskolakoez 3,5 euro eta Geltoki plazakoak doan dira. o

## GAZTEENTZAKO HAMAIA LANTEGI

Urteko azkenengo lauhilekoko ikastaroak martxan ipiniko ditu laster Gazteria Zerbitzuak. Ohi legez, ikastaro gehienak euskaraz eta gaztelaniaz eskainiko dituzte, eta 5 euroko prezioa dute. Eskaintza zabaldu dute aurten, guztira 13 ikastaro egongo dira eta lantegi berriak ere emango dituzte, hala nola: masajea, skate, linux, blog, antzerkia edota kantua. Horrez gainera, beste ikastaro batzuk ere badira, adb.: malabare eta akrobaziak; marketeria; makilajea; munduko deliziak; kulturarteko gastronomia; jendaurrean hitz egiteko teknikak; hip-hop...

**Informazio gehiago: Tangora Etxea, 944910114-ra deituz edo [www.getxo.net](http://www.getxo.net)**

## EGIZU ETA BIZARRA LEPOANEKO IKASTAROAK

Ikasturtea abian da eta Egizuk eta Bizarra Lepoan euskara elkarteak indar berriz ekin gura diote denboraldiari. Hala, Egizuk euskarazko yoga ikastaroa ipini du martxan (astelehena eta eguaztenetan, 19:30-21:00; 30 euro hilean). Bizarra Lepoan elkarteak 100 orduko bizkaiera ikastaroa (Labayruk homologatua) eskainiko du aurten (martitzen eta eguenetan, 20:00-22:00, 150/200 euro). Bestalde, Sendi egitasmoaren barruko Gurasoak Lagunduz ikastaroa (seme-alabei etxeko lanak egiten laguntzeko) urriaren 16an hasiko da. Eta Berbalaguna eta Gurasolaguna taldeak ere prest daude mintza-praktikarako.

**Informazioa: 94 491 4357 edo 619 935 541**

## BOSTEKO 2007 ERAKUSKETA ERROMON

Hamargarren urteurrena betetzen du Bosteko erakusketak ibiltariak eta aurtengoan pintura izango da progragonista. Horretarako 3 margolari ezagunen, Bonifacio Alonso, Juan Luis Goenaga eta Fernando Biderbosten lanak aukeratu dituzte. *Bosteko 2007* erakusketak Erromoko erakustaretoan egongo da ikusgai hilaren 16tik azaroaren 3ra arte.



**Basurto**

Algorta S.L.

altzariak

## LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m<sup>2</sup>ko erakusketak **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA



Ana Lopez > Kultur Leioako zuzendaria

## “Ez dugu tamaina handiko ikuskizunik bilatzen, egunerokotasuna baizik”

Hiru urte pasatu dira Kultur Leioak ateak ireki zituenetik. Harrezkero, adin guztietako herritarrei zuzenduriko hamaika kultur ekintza antolatu dute. Hirugarren urteurrena izanik, aukera ona iruditu zaigu Ana Lopez, Kultur Leioako zuzendariagaz, hizketalditxo bat edukitzea zerbitzuaren bilakaera lehen eskutik ezagutzeko. Ana Lopezek azaldu duenez, urte hauetan herritarren konfiantza osoa lortu dute.



Argazkian, Ana Lopez bere bulegoan

—Zer ekarri du Kultur Leioak herrira?  
—Hiru urte hauetan Kultur Leioa Bizkaiko erreferente bihurtu dela esango nuke. Orain dela hiru urte kultura-zerbitzuak sakabana-tuta zeuden eta jendeak leku batetik bestera joan behar zuen informazio eske. Gaur egun, berriz, eraikin bat daukagu eta kultur ekintza ugari ditugu bertan ikusgai.  
—Zelako bilakaera eduki du Kultur Leioak urte hauetan zehar?  
—Eskaintza urtero moldatzen ahalegindu gara. Gure helburua kalitatezkoa izan dadila izan da beti, eta nola ez, gustu ezberdinak ere asetzeari. Horretarako ikerketa bat burutu genuen jendea eroso senti zedin. Bestalde, azpiegiturari dagokionez, aldaketa gutxi egin ditugu.

—Zeri ematen dio lehentasuna Kultur Leioak?  
—Jendeak bilatzen duen guztia hemen aurkitu ahal izateari. Egunez egun hemen zer edo zer egotea da gure helburua; ez dugu bilatzen tamaina handiko ikuskizunik, egunerokotasuna baino. Urte batean, esaterako, 250 ekintza inguru izan ditugu. Mota guztietako gustuak asetzen dituzten kalitatezko eskaintza kulturaleri ematen dio garrantzia Kultur Leioak.

—Zer nolako kultur ekintzak dira herritarren interesa gehien pizten dutenak?  
—Denetarik dago. Oro har, ikuskizun baikoitzak bere publikoa dauka.  
—Oraindik beteta ez dagoen baina betetzeko asmoak dituzuen gabeziaren bat al dago?  
—Gure helburua gero eta jende gehiago hurbiltzea da. Horrenbestez, herritarren eskaera ahalik eta hoberen ase gura dugu. Alde horretatik konfiantza irabazten gabiltza. ○

## Eskalatzen ikasten

Sakonetako bulderrean entrenamenduak izango dira Federazioaren ekimenez



Sakoneta kiroldeko bulderra

**Aurten** ere Sakoneta kiroldegiko bulderrean entrenatuko dute 14 eta 20 urte bitarteko gazteek. Entrenamendu hauek Federazioak antolatzen ditu Gazteentzako Hobekuntza Zentroa deritzen proiektuaren barnean eta urria eta ekaina bitartean egingo dira. Nabarmendu beharra dago eskolak jasotzeko baldintza bakarra federaturik egotea dela.

Ander Gardezabal entrenatzaileak dioenez, zelan mugitu behar den eta eskalatzeko teknikak ikasten dira bertan. Baina jakina, bulderrean edo mendian ibiltzek ez du zerikusirik. *“Naturara joaten ere saiatzen gara, zaleek aseguru teknikak eta konapiloak egiten ikas dezaten”*, gaineratu du Gardezabalek.

Entrenatzaileak azaldu duenez, Bizkaian

“zoritxarrez” ez dago eskalatzen ikasteko rokodromo egokirik. Rokodromoa izateko baldintza batzuk bete behar ditu, hala nola, altuera bat (gutxienez 12-14m) edota txapak edukitzea. Eta Bizkaian dauden apurrak, Gardezabalen arabera, ez daude oso zainduak: *“Gasteizen, adibidez, Federazioak darmatza rokodromoak eta oso onak dira”*.

Oso garrantzitsua da rokodromoak egoera onean egotea, eskalatzaile hasiberriari asko errazten baitio ikasketa. *“Nahiz eta zure eskalada mundua mendian finkatu, rokodromoa hasteko biderik egokiena da: oinarritzko teknikak eta aseguratze teknikak ikastea errazagoa da”*, azaldu du kirolariak. ○

## AHOLKULARITZA SEXOLOGIKOA URRITIK AURRERA

Aterpe Gazte Bulegoak zerbitzu berri bat eskainiko du aurrerantzean, aholkularitza sexologikoa, alegia. Aipatutako zerbitzua sexologoz osatutako lan-talde batek burutuko du. Aholkularitza gazte zein gurasoei zuzenduta dago.

## XVIII. MUSIKA DENBORALDIA IRAILETIK AZARORA BITARTEAN

Leioako Kultur Etxeak musika denboraldi berria antolatu du. Kontzertuen prezioak 10 eta 18 euro artekoak izango dira, eta 20:30ean hasiko dira, Kultur Leioako Auditorioan. Urriaren 26an, Fam de Funk taldeak jazz-fusion, funk eta soul musika uztartuko ditu. Ariel Rot azaroaren 23an arituko da. Hilabete berean, 28an, Etnikak Maltako musika-herentzia ekarriko du. Azkenik, eta XVIII. Musika Denboraldiari amaiera emateko, Fussion Project taldea izango da, tango, jazz, swing, blues edo bossanovaren erritmo desberdinakaz.

## TXILEKO PAISAIA ZERAMIKA, BUZTIN ETA PORTZELANAZKO ESKULTURETAN IKUSGAI

Mariana Canepak Txileko paisaia hurbildu digu berak buztinez egindako eskulturei esker. Lurra bitarteko, baliabide poetiko honek egilearen ikus-sentsazioen giroa erakusten digu denborarekin, oroimenarekin eta iraunkortasunarekin izandako eraso malenkoniatsuan. Zentzu horretan, oroimenaren kontzeptuari “buztinaren esentzian bertan dagoen zerbait” irizten dio Mariana Canepa artistak. “Lur memoria” izeneko erakusketa hau Irailaren 20tik urriaren 31ra arte egongo da ikusgai Erakusketa Aretoan.

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

**ERROTULOAK**

**BEST**

**ERA GUZTIETAKO  
ERROTULOAK eta  
INPRESIO DIGITALAK**  
egiten ditugu

e-mail: [hirustab@euskalnet.net](mailto:hirustab@euskalnet.net)

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07  
e-mail: [leioa@ikastola.net](mailto:leioa@ikastola.net) • [www.ikastola.net/ikasweb/leioa](http://www.ikastola.net/ikasweb/leioa)

**udondo**  
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2  
T: 94 463 00 45 - LEIOA

M<sup>a</sup> Asun Alonso eta Casilda Muñoz > Emakumeen Elkarte Sozio-Kulturaleko kideak

## “Herriko emakumeon arteko komunikazioa garatu gura dugu”

Irailaren 20an Erandioko Emakumeen Elkarte Sozio-Kulturalak bere egoitza berria ireki zuen. Baina badira 17 urte emakume talde batek elkarte sortzea erabaki zuela eta harrezkero, asko izan dira elkartetik pasatutako emakumeak. M<sup>a</sup> Asun Alonso eta Casilda Muñoz E.E.S.K-ko batzarreko kideek gogoratu dutenez, hastapenetan elizak utzitako lokal batean egiten zituzten euren jarduerak.



Egoitza berriaren zabalitze eguna

—Zeintzuk dira elkartearen helburuak?  
—Helburu nagusia herriko emakumeak batzea da. Hori izan zen orain dela 17 urte elkarte sortu izanaren arrazoia. Behin xede nagusia beteta, elkarteak baditu beste hiru helburu: kultura, prestakuntza eta aisialdia. Emakumeen jakinmina piztu nahi dugu. Honekin ez dugu esan nahi kontsultategi gisa dihardugunik, baina badatoz arazoak dituzten emakumeak eta beste batzuek erlazionatzea ondo datorkie. Emakumeon arteko komunikazioa garatu nahi dugu.  
—Zenbaterik osatzen duzue elkarteak?  
—Momentu honetan 1.142 emakume gauden elkartearen barnean. Baina elkarte gutzie-

tan bezala, kide batzuk besteak baino aktiboagoak dira. Parte-hartzaileok 400 bat izango gara. Honek ez du esan nahi ikastaroetara joateko elkarte bazkide izan behar duzunik. Are gehiago, zenbait ekintzetan gizonetako ere badaude.

—Elkartera ezagutzen ez dugunontzat: zer eratako ekintzak antolatzen dituzue?  
—Denetarik daukagu. Alde batetik, ikastaro ugari antolatzen ditugu: euskara klaseak, pintura, Tai-chi, dantzak... Ikastaroen zerrenda oso luzea da. Bestetik, beste era ba-

tuetako ekintzak ere prestatzen ditugu, hala nola irteerak, zine-foruma, erakusketak, Sahararen aldeko festa...

—1.142 kide, elkarteak herritarren onarpen osoa dauka beraz.

—Bai, erabatekoa. Guk horren ustea daukagu behintzat. Jendeak ezagutu eta kontuan hartzen gaitu. Ez dugu ahaztu behar herriko bizitzan ere parte hartzen dugula, Erandioko jaietan adibidez, edota urteroko liburu azokan. Honek guztiak jendeak elkartera ezagutzea ahalbidetzen du. ○

## Kultur ondarea zabalduz

Jardunaldiak izango dira herriko iragan historikoa hobeto ezagutzeko



Martiartu dorrea

**Erandioko** kultur ondareari buruzko jardunaldiak izango dira urriaren lehenengo astean. Honen bitartez, herriko iragan historikora hurbildu eta gure kultur ondarea ezagutzeko aukera izango dugu.

Zelan ez, Martiartuko dorretxeak jasan dako zorigaitzak izan dira jardunaldi hauen ardatz nagusienetarikoa. 1300. urtean Leguizamoneko Diego Perezen semeek Martiartu familiaren ahaide nagusia eta bere 15 gizon erre zituzten dorretxearen barruan. Garai horretan mendekuak ugariak eta eguneroko gauza izaten ziren Bizkaian. 1321ean Martiartu eta Zamudioko familiako senitarrekoek Leguizamoneko dorretxe zaharra erre eta bota egin zuten. Mendeku horretan Leguizamo-

neko Diego Perezen seme guztiak hil zituzten. Beranduago, 1472. urtean, Martiartu familiaren etsaiek dorretxea erre zuten.

XVI. mendearen hasieran berreraiki zuten dorretxea eta Bilboko Udalaren eskuetara pasatu zenean kanpotik berriztatu zuten.

Baina gehiago jakin nahi izanez gero, urriaren 3an Bilboko Eleiz Museoaren zuzendaria den Juan Manuel Gonzalez Cembellinek “Los Martiartu y su torre” hitzaldia emango du.

Hilaren 6an berriz, herri-irteera izango da Martiartu Dorrera. Astrabduatik (Josu Murueta plaza) eta Alzagatik abiatuko da txangoa goizeko 9etan. Autobusez bueltatzeko, 94 489 01 40 telefonora deitu. ○

## IKASTURTE HONETAN ERE MARTXAN IZANGO DA BERBALAGUN PROIEKTUA

Aurten ere abian jarri dute Berbalagun proiektua. Jadanik irekita dago “Euskara ikastea hitz egiten” programan izena emateko epea. Modu honetan, Berbots Erandion Euskaraz elkartek euskara ikasi eta hobetzeko aukera eskaini gura du. Horretarako, euskaldun baten laguntza izango duten taldean antolatuko dira. Zalantzarik gabe, aukera ona da euskara ikasi eta hobetzeko. Bestalde, aisialdi eta denbora libreko euskarazko jardueren eskaintzak aurrera jarraituko du. Irailaren 28tik aurrera Bordatxu Gazte Txokoa zabalik dago. Jarduera hau 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendua dago.

Informazio gehiago: 658 70 93 32.

# Eskola Escuela

Plater-Tiro eta Ehizarako Kiroi-Elkartea



Taberna eta kartutxo denda

Posta Kutxa 33 Leioa  
Tel: 94 633 81 59

Zure publikizitatea hemen  
Zure publikizitatea hemen  
Zure publikizitatea hemen

94 491 13 37

**moda gaztea opariak**

**IRATI**

Torre 2, ALGORTA  
T. : 94 491 12 71

**Basolanak**

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa  
**DEITU!**

T. 94 467 17 13  
F. 94 467 42 41

**ERANDIO (Bizkaia)**

Mobila  
Asier: 629 411 838  
e-posta: basolanak@terra.es

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitarako igogailuak  
Eskailera igogailuak  
Plataformak

Arazoei agur... **902 54 08 54**



[www.arlan.biz](http://www.arlan.biz)

Joseba Goikoetxea > Airetik Clubeko kidea

## “Barinatxeko labarretara jende asko dator, Bizkaiko lekuri egokienetakoa da eta”

Parapentea azken boladan hazten ari den kirola da. Horren lekuko, Airetik Sopelako parapente klubak irailean antolatutako inauteri berezietan izandako parte-hartzaile andana ditugu. Klubeko kidea den Joseba Goikoetxeak ongi azaldu duenez, kirol hau ikastea ez da zaila eta edozein adinekin has daiteke. Hala ere, berak gomendatutakoaren arabera, 15 urtetik gora ikasten hastea da onena.



Argazkian, Joseba Goikoetxea

—Zenbat lagunek hartu du parte azkeneko mozorro txapelketan?

—15 pertsona inguruk hartu dute parte aurtengo mozorroetan. Aldi berean, argazki txapelketa izan zen, eta bertan 30 bat lagun egon ziren; inoiz baino gehiago.

—Nongoak dira parte hartzaileak?

—Gehienak bizkaitarrak dira. Hala ere, badaude Gipuzkoatik datozen batzuk, Arabatik... Aurten madrildarrak ere izan dira geure artean. Eta azkenik, badaude urtero datozen bizpahiru frantziar.

—Mozorroturik hegan egitearen ideia nondik irten da?

—Aspaldiko kontua da. Orain dela 15 bat urte Sopelako Julia Reigadaren parapente eskolak horrelako mozorro egunak antola-

tzen zituen urtero. Ondoren, eskola hori itxi egin zuten. Urte batzuetako hutsunea egon ostean, Airetik sortu eta txapelketa hura berreskuratzea erabaki genuen.

—Sopeloztar ugari al dabil parapentea praktikatzan?

—Egia esan, ez. Gehienez zazpi pertsona egongo dira. Kontua da hona, ziurrenik Bizkaiko lekuri aproposenatarikoa delako, jende asko datorrela.

—Ba al dago ikastarorik?

—Bai, Sopelan badago eskola bat egunero

klaseak ematen dituena. Baina uda pasa eta gero eskola gitxiago ematen dira haizeak gogor astintzen duelako. Hori dela eta, udazkenaren erdialdetik aurrera ez da klase-rik egoten.

—Zaila da kirol hau ikastea?

—Edozein kiroletan bezala, hasieran astiro eta kontu handiz joan behar duzu. Baina printzipioz ez da zaila. Gainera, esan daiteke ia hasieratik hegan egiten dela. Beraz, ikasten duzun bitartean disfrutatzen egoten zara; ez da batere astuna egiten. ○

## Bidaiteka zerbitzua

Munduko leku turistikoetarako buruzko informazioa jasotzeko zerbitzua eskaintzen du Turismo Bulegoak



Txinako harresia

**Sopelako Turismo Bulegoak** Bidaiteka zerbitzua eskaintzen du, munduko leku turistikoetarako buruzko informazioa jasotzeko. Zerbitzu hau edonork erabil dezake, bai sope- loztarrek, baita kanpotarrek ere. Liburute- giko materiala erabiltzen den moduan, informazioa jaso ostean 15 egunez uzten zaio eskatzaileari. Nahi izanez gero, kopia ateratzeko aukera ere badago.

Nazareth Marina Albendea udalerriko turismo arduradunak azaldu duenez, Sopelako herritarrak dira kontsulta gehien egiten dituztenak. Iberiar penintsulako helmuga gustukoena Katalunia eta Asturias dira.

Urrunera begira, Txina, India eta batez ere, Karibe dira herrialde kontsultatuena.

Bestalde, Sopelara datozen bisitari gehienak bizkaitarrak, kataluniarrak eta madrildarrak izaten dira. Turismo arduradunak dioenez, Europa barnealdetik datozenak frantziarrak eta ingelesak dira nagusiki. “Australia, Kanada eta Zeelanda Berritik baten bat ere badator”, gaineratu du Nazarethek.

Surfa egiteko tokiak eta kostaldeko ibilbideak dira atzerritarrek gehien eskatutakoa. Hiriak ere asko erakartzen ditu turistak, eta horrenbestez, asko dira Bilboren inguruan galderak egiten dituztenak. ○

## INOIZ BAINO KORRIKALARI GEHIAGO LASTERKETA NUDISTAN

Guztira 136 korrikalari hartu zuten parte Sopelako aurtengo Lasterketa Nudistan: 45 gizonezko, 10 emakumezko, 65 beterano eta 16 ume. Euskaldunetz gain, beste leku askotako korrikalariak hartu zuten parte lasterketan, hala nola, Zaragozakoak, Tarragonakoak, frantsesak, alemaniarak, italiarrak eta Txilekoak. Mikel Rodriguez izan zen helmuga zeharkatzen lehenengoa (10’31”). Erandioko 11 urteko gazte honek lasterketa irabazten duen hirugarren aldian izan da aurtengoa. Haurren ondoren, gizonezkoen kategorian, Leioako Fernando Suances izan zen azkarrena (18’21”). Honek ere bigarren aldiz irabazi du proba hau.

## UDALTZAINGOA AUTO HIBRIDOA ERABILTZEN HASI DA

Sopelako Segurtasun arloak patruila-auto hibridoa erosi berri du “ingurumenaren jasangarritasuna zaintzeko asmoz”. Kotxe honek, gasolinarekin ibiltzeaz batera, elektrizitatea ere erabiltzen du. Honda Civic Hybrid modeloko patruila-autoak 100 kilometroko 5 litro gasolina kontsumitzen ditu kutsadura murriztuz, alde akustikoan zein isuritako CO2an. Aldi berean, auto hibrido bat erosten duenari Udalak zirkulazio zergaren %75 ordaintzen dio ingurumen sentsibilizazio-kanpainari jarraiki.

## ZABALIK DAGO AISIALDIKO BEGIRALE IKASTARORAKO IZENA EMATEKO EPEA

Aisialdiko Begirale Ikastarorako izena emateko epea urriaren 5a arte zabalik egongo da. Ikastaroa urriaren 13an hasiko da eta 2008ko ekaina arte iraungo du. Ezinbestekoa izango da egutegi osoa betetzea gainditzeko. Ikastaroak 320 ordu izango ditu orotara.



## AIXERROTA BHI

24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

• TEKNOLOGIKOA  
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK  
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK

ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86



Bentatxu, 2  
48600 Sopela  
Tlf. 94 676 03 28

## EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,  
etxera eramaten dizugu  
egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78  
T.: 94 491 27 34

# Otxandategitarrak Polonian

Aurten ere uda partean atzerrian ibili da Otxandategi dantza taldea. Polonian, hain zuzen. Uztaila amaiera eta abuztu hasiera Bestwina herrian eman zituzten otxandategitarrek, hango dantza taldekoen etxeetan. Hainbat leku zoragarri bisitatzeaz gain, nazioarteko folklore jaialdi batean parte hartu zuten, egun bitan hiru dantzaldi eginez. Baita ohorezko sari garrantzitsu bat jaso ere. Estresak jota baina pozik itzuli ziren Berangora, diotenez.



Kakarraldo Sunplash Jaialdia > munduko musikak

“Urtez urte **hazten joatea** gustatuko litzaiguke, jaialdi ezagun bihurtuz”



Argazkian, Jokin Gezuraga

**Irailaren 14an** Kakarraldo Sunplash Jaialdia ospatu zen lehen aldiz Urdulizko Elortza auzoan. Musika beltza eta munduko musikak hurbiltzeko asmoarekin jaio den ekimen honek, musika mota hau jutzen duten banda interesgarriak ekartzeko helburua dauka. Aurten, Urdulizko Chalkwa, Kantabriako Lone Ark eta Jamaikako Alpheus reggae taldeak izan dira: “*Erronoko Brixton dendako lagunekin kontaktuan jarri eta eurek lagundu ziguten talde indartsu batzuk bilatzen*”, azaldu digu Jokin Gezuragak, Jai Batzordeko kideak. Herriko zein kanpoko jendea hurbildu da jaialdira: “*Interneten iragarri dugu eta debalde izan da; horrek jende asko erakarri du. Gainera, musika mota honek adin guztietako jendea erakartzen du*”.

Jaialdi bezala aurkeztu duten lehenengo urtea izan den arren, aspaldi hasi ziren musika estilo honen alde egiten Urdulizen: “*Orain dela urte bi hasi ginen; Potato eta*

*hurbileko taldeak ekarri genituen hasieran*”. Kontzertuek izan zuten arrakasta ikusita, jarraipena eta izen bat ematea erabaki zuten Jai Batzordeko lagunek: “*Kakarraldoa herriko ikurra da eta horrexegatik aukeratu genuen*”.

Orain arte Udalak jarri du jaialdia antolatzeko behar izan den dirua, baina beste iturri batzuk aurkitzea gustatuko litzaieke

**«Datorren urterako babesleak bilatzen ahaleginduko gara»**

antolatzailerei: “*Urduliz herri txikia da eta zaila da diru barik horrelako ekimen bat aurrera ateratzea. Datozen urteetarako babesleak aurkitzea gustatuko litzaiguke, gauzak fundamentuz egin ahal izateko*”. 2007ko edizioan Jamaikako reggae-a izan da nagusi, baina munduko beste txoko batzuetatik ekarritako doinu dantzagarriak hurbildu gura dituzte datozen urteetan. ○



**TXIBERRI**  
e d a n t o k i a  
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

T: 94 676 07 15

**BASTARTENA**



URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

**AJURIA**  
**TABERNA**

Andrés Cortina 2

ALGORTA



**Taberna Berri**

Sarrikobaso 4 -ALGORTA  
Tf.: 944 306 493



**VIEJO CAFE**

kopak eta  
giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03  
ALGORTA

## PILAK BIRZIKLATZEKO EDUKIONTZI BERRIAK

Uribe Kostako Mankomunitateak pilak birziklatzeko ontziak erosi ditu. Ikastetxeetan, kultur etxeetan, dendetan eta udaletxeetan jartzeko 170 ontzi eta etxean erabiltzeko 5000 ontzi banatuko ditu. Azken hauek lortzeko, Mankomunitateko bulegoetara, Barrika, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Urduliz eta Berangoko Udaletara eta kultur etxeetara jo daiteke. Helburua, pertsona bakoitzak ontzi horretan pilak gordetzea eta, behin beteta, hurbilen daukan ontzi orokorrera botatzea da.

## UDALAK INFORMAZIOA EMAN BEHARKO DIO TXIPIO BAI ELKARTEARI

Euskal Autonomi Erkidegoko Auzitegi Nagusiak Lemoizko Udalaren kontrako kondena berretsi du. Udalak, azken bost urteotako lur ez-urbanizagarrietan eraikitzeko baimenei buruzko informazioa eman beharko dio Txipio Bai elkarte ekologistari. Honez gain, epaiketa-kostuak ordaindu beharko dizkio. Ekologistei informazioa ukatzeagatik Lemoizko Udalaren kontra onartzen den hirugarren epaia da.

## EUSKARAZ OLGETAN URRIKO DOMEKETAN

Gorlizko Iberberri Enparantzak Uribe Kostako Mankomunitateak antolatzen duen *Euskaraz Olgetan* ekimena hartuko du urriko domeketan, goizeko 12etatik 14etara. Ekimen honek 1 eta 10 urte arteko umeak euskara erabiltzera bultzatu nahi ditu.

## BARRIKA

### Laguntza bila dabil Barrikako Adecabi



Honduraseko San Inazio heziketa zentroa

**2005ean sortu** zen Adecabi Gobernu Kanpoko Erakundea, Honduraseko El Negrito herriari laguntzeko helburuaz. Ordutik, bertako San Inazio heziketa zentroarekin elkarlanean ibili dira, Honduraseko gazteak droga, alkohola eta *maren* mundu arriskutsutik aldentu nahian. Honez gain, bertako artzautza bultzatzeko egitasmoan eta gazteentzako liburutegi baten sorreran parte hartu dute, besteak beste. Mankomunitatearen, Portugalteko eta Barrikako Udalen, Uribarriko

konpartaren eta beste zenbait elkarte eta banakoen laguntza ekonomikoa izan arren, ez dute egoitza propiorik eta proiektuak aurrera eraman ahal izateko baliabide faltan daude. Horregatik, ekonomikoki laguntzeko prest dagoen enpresa, elkarte, erakunde eta banakoei deia luzatu nahi diete, eurekin harrremanetan ipini eta Honduraseko herriaren alde egiten lagun dezaten. ○

Info: 605 762 450 / [www.adecabi.org](http://www.adecabi.org)

# Urr. 1-15

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [agendauk@aldizkaria.biz](mailto:agendauk@aldizkaria.biz) • Tel.: 94 491 13 37

## ERAKUSKETAK

### LEMOIZ

► **Txelu Angoitiaren argazkiak.** Kultur Etxea. Urriaren 13tik 23ra.

### GETXO

► **Markel Redondoren argazkiak.** Algortako erakusketa aretoa. Urriaren 11 arte.

► **Elena Lopez de Uralderen argazkiak.** Erromoko erakusketa aretoa. Urriaren 11 arte.

► **Bonifacio Alfonso, Juan Luis Goenaga eta Fernando Biderbosten pinturak.** Erromoko erakusketa aretoa. Urriaren 16tik azaroaren 3ra arte.

### PLENTZIA

► **Medicos sin Fronteras.** "Crisis Olvidadas: Vidas ignoradas". Urriaren 3tik 30era arte.

## MUSIKA

### LEIOA

► **Okupando Rom@, Ultima Neurona eta Ovarios Varios.** Udondo gaztetxea. Urriak 6, zapatua. 20:00. Sarrera: 3 euro.

► **Blues-Jazz zikloa.** Kultur Leioa. Urriak 19, barikua. 20:00. Sarrera: 6 euro.

► **Fam de Funk.** Auditorium. Urriak 26, barikua. 20:30. Sarrera: 10 euro.

### GETXO

► **Dantza orkestra.** Nagusien Etxea. Urriak 5, barikua.

## ZINEMA

### LEIOA

► **III. Garapen eta komunikazio emanaldiak; Kuba.** Auditorium. Urriak 1, 2 eta 3. 20:00.

► **Perzeo zineforuma.** Auditorium. Urriak 9. 20:00.



► Musika

### Fam de Funk taldea Leioan

Urriaren 26an Fam de Funk taldeak ikuskizuna eskainiko du Leioako Kultur Etxeak antolatutako XVIII. Musika Denboraldiaren barnean. Aipatutako taldea 2005. urtean sortu zen eta Nazioarteko esperientzia duten hamar musikaririk osatzen dute. Nabarmendu beharra dago jazz-fusion, funk eta soul musika jorretza gustuko dutela. Errepertorioan euren konposizioak zein beste zenbait egileren bertsoak dituzte, hala nola, James Brown, Maceo Parker, Walter Wolfgang Washingtonenak. Kontzertua 20:30ean hasiko da Leioako Auditoriumean, sarrera 10 euro kostatzen da.

• Non: Leioako Auditorium • Noiz: urriak 26 • Ordua: 20:30

## ANTZERKIA

### GETXO

► **Cueva de ladrones.** Kanpingags. Getxo Antzokia. Urriak 12, barikua. 20:00. Sarrera: 9/7 euro.

► **Birusak erasoan.** Toni La Sal. Andres Isasi Musika Eskola. Urriak 13, zapatua. 18:00. Sarrera: 3,50 euro.

► **Gondola misterioitsua.** Gorakada. Algortako Geltokia plaza. Urriak 13, zapatua. 13:00.

► **Mujeres en sus camas.** Tanttaka. Getxo Antzokia. Urriak 13, zapatua. 20:00. Sarrera: 9/7 euro.

► **Bota patsa!** Txalo. Getxo Antzokia. Urriak 19, barikua. 20:00.

### LEIOA

► **Antígona** Vaivén teatro. Auditorium. Urriak 5, barikua. 20:30. Sarrera: 12 euro.

## BESTEAK

### ERANDIO

► **Juan Manuel Gonzalezzen hitzaldia.** "Los Martiartu y su torre". Josu Murueta.

Urriak 3, eguaztena. 19:30.

► **Irteera herrikoa Martiartu Dorrera.** Josu Murueta eta Altzagatik. Urriak 6, zapatua. 09:00.

### LEIOA

► **"Pequeños paraísos" ikuskizuna.** Aracaladanza. Auditoriuma. Urriak 7, domeka. 12:00. Sarrera: 4 euro.

► **Kilometroak.** Bergara. Urriak 7, domeka. Sakoneta kiroldegia. 8:30. Sarrera: 3/5 euro.

► **Nafarroa oinez.** Viana. Urriak 21, domeka. Sakoneta kiroldegia. 8:30. Sarrera: 3/5 euro.

### GORLIZ

► **Haurrentzako Malabare tailerra.** Iberbarri. Urriak 7, domeka. 12:00.

► **Irakurketa tailerra.** Iberbarri. Urriak 14, domeka. 12:00.

► **VI. Perretxiko Jardunaldia.** Iberre. Urriak 14, domeka. 12:00.

► **Joseba Ríos Garaizara: "Historiurrea Uribe Kostan".** Erakusgelan. Urriak 19, barikua. 19:30.

► **Ipuin kontalaria.** Ikastetxea. Urriak 20, zapatua. 18:30.

### PLENTZIA

► **Irteera herrikoa Iratiko oihanera.** Urriak 13. Izen ematea: 94 677 50 31. Sarrera: 30 euro.

### BARRIKA

► **"Familia-txangoa".** Kanoak, arku jaurtiketa, eskalada. Urriak 6. 10:15etik 14etara "Troka"n.

### BERANGO

► **Nagusientzako bazkaria.** LEON Jatetxean, Artxanda. Urriak 4, eguena. 12 euro.

► **Nazioarteko XX Milla.** Gobelalde kalea. Urriak 6, zapatua. 16:40.

► **Kilometroak.** Bergara. Urriak 7. Berangoko Kultur Etxea. 9:00.

# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf: 460 90 31  
48990 ALGORTA

# VASA



KLIMATIZAZIO  
INGENIARITZA  
INSTALAZIOA  
MANTENIMENDUA  
Otxandategi tar Simon 114  
48640 Berango, Bizkaia  
Tel. 94 668 15 51  
Faxa. 94 66829 92  
e-mail: [vasa@vasa.biz](mailto:vasa@vasa.biz)



# ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA

[albuma]

# FOLKGETXOBBK



## Oraingoan badoazela!

*“Ehun aldiz agur, esan ez banizu ez nizun inoiz esan; ta ehun aldiz ehun ez naiz sekula joan izan...”* abesten dute, baina Getxo Folk-eko emanaldia azkena izan ei zen. Jai giro alaian euskal plazak urrutiko musika doinuakaz jantzi dituzte, bertsoak uztartuz urrunekoetara hurbiltzeko... Jon Maia, Aran Santamaria, Tolo, Jon Manzisidor, Imanol Manterola eta Domentx Uzin dira Karidadeko Bentako kideak eta hiru disko utzi dituzte euren kulturarteko ibilbidearen orogarri. Guk *“hurrengora arte”* esanez agurtuko ditugu!

Argazkiak: **Jose Mari Martinez “Bubu”**





Cordoba, Argentina 2001

## Asado en Mendiolaza

Marcos Lopez

Askok eta askok ikusiko zenuten goiko irudia GETXOPHOTOko karpan. *Asado en Mendiolaza* du izena eta dagoeneko XXI. mendeko Hego Ameriketako argazkigintzaren ikono bihurtu da Marcos Lopez argentinarraren lan bikain hau, bere herriak bizi berri izan duen krisialdia ederto isladatzen duena.

[berbetan]

Oraintsu Begihandi elkarteak antolatu duen Getxophoto argazki jaialdiko komisarioa izan da Alejandro Castellote (Madril, 1959). Begi-ninia beti erne eta begirada zorrotza daukan komisario independentea 80. hamarkadan hasi zen argazkigintza jorratzen. Fotografia munduan bada nor madrildarra: Madrileko Arte Ederreko Zirkuluko Argazkigintza alorreko zuzendari izandakoa (1985-1996), FOCO (Argazkigintza Garaikidea) jaialdiko zuzendaria, egile gazteentzako Minerva fotografia Aretoa sortu zuen (1987) Arte Eder Zirkuluaren barruan, PhotoEspaña Nazioarteko Fotografia Jaialdiko sortzaile eta zuzendari artistiko izan zen (1998-2000), argazkilaritzaren inguruko hainbat liburu argitaratu ditu... Orain begirada non duen ipinita igartzen ahalegindu gara.

# Alejandro Castellote

## Argazki-kameraren ninitik!

Testua: **Irantzu Sagarmiga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Zertan oinarritu zinen Getxophoto erakusketarako lanak aukeratzean?

—Antolatzaileen eskariei begiratu nien, Getxophotok nazioarteko argazkigintzaren eta argazkilari inportanteen presentzia edukitzea zen euren nahia. Aukera-ketari zelantzaiteko koherentzia emateko Latinoamerikara begiratu genuen, hainbat gai jorratzeko, adb.: Latinomerikaren egoera (ikuspuntutik sarkastiko edo isekari batetik Marcos Lopezen begietatik); jatorrizko herrien irudikapenen aldaerak (Perukoena Javier Silvaren ikuspegitik eta Venezuelakoena Antonio Briceñorenatik); proganisten begiradak ere bilatu ditugu (Rio de Janerioko faveletan sortu den *Olhares do Morro* kolektiboaren bidez, neska-mutilak dira euren buruari eta inguruari argazkiak egiten dizkietenak)...

—Begirada beste alde batera bideratu...

—Hori da. Eta galderak luzatu, jendeak hausnar, balora dezan zelako ikuskera du-

gun “exotikoa” diogunari buruz.

—Kutsatutako begirada da gurea...

—Horixe! Zentzu zabalean, oso europarra, oso Estatu Batuetakoa ere. Gure kulturakoa ez dena exotiko legez ulertzeko begirada dugu. Horrek ikuspuntu oso etnozentrakoa dugula ere badiosku.

—Amaitzen dabilen honetan, zer iruditu zaizu Getxophoto jaialdia?

**“Gure kulturakoa ez dena exotiko legez dugu; oso etnozentrakoa gara”**

—Lehenengo edizioak oso konplexuak dira beti, ordura arte ez zegoen ekitaldia aurkeztu eta jendearen begietaraino eroan behar duzulako. Ikuspegi horretatik ezusteko itzela izan da! Jendeak oso ondo hartu du, uste genuena baino arinago egin da ezagun, lekuen kokapenean asmatu egin dute... Bertso-photo ekitaldia antolatzearen ideia

arrakastatsua izan zen. Bertan egon nintzen, eta jende dezente erakarri zuen.

—Argazkigintza kalera atera, kaletarrei hurbiltzea ere antolatzaileen beste helburuetako bat zen. Zelan ikusi duzu?

—Alde garrantzitsu bat zen hori, eta ni guztiz ados nago. Argazkigintza horretarako gaitasuna duen bitartekoa delako. Gune itxi, “sakratu” horietatik ateratzearen aldekoa

naiz, gune horiek askotan elitizatzen hartuak izaten dira eta. Irudiak elkarbizitza da kontua, gure egunerokoa egiten dugun legez; ezen gure gizartean ikus-kulturak sekulako garrantzia dauka eta irudiak uneko ditugu presente. Hala, eta argazkigintzaren bitartez artea egin daitekeela edota munduaren zure ikuspegia konta dezakezula





kontuan hartuta ere, hori baino gehiago lor daiteke argazkigintzaren bitartez; horren adibide da Getxophoton ikusgai egondako Peruko Egjaren eta Adiskidetzaren Batzordearen erakusketa. Argazkigintzaren bidez gai sozialagoetara, politikoagoetara hurbil gaitzkeela adierazten du, argazkigintza tresna benetan eraginkorra datekeela gai horiei buruz ere komunikatzeko.

—**Hizkuntza bakarraren aurrean, dialektoen aldekoa zara. Periferiak eta hizkuntza autonomoak dituzu gogoko eta horiei begiratzea aldarrikatzen duzu. Argazki-gintzari dagokionez, zer esan gura du?**

—Hizkuntzak/dialektoak deitzen ditut nik hizkuntza bakarretik desberdintzeko. Izan ere, etnozentrismo garen sentimentu horrek inposatzen digu, hain zuzen ere, hizkuntza bakarra; letra larriz idazten dugun Kultura europar kultura edota Estatu Batuetako kultura bakarrik delako uste hori, mundua ikusteko “gure modua” era bakarra delako ustea. Beste ikus-gramatika batzuk, beste hizkuntza eta dialekto batzuk (bakoitzaren dentsitate eta heldutasunaren arabera) ezagun egitea oso interesgarria iruditzen zait. Gainera, bizi dugun momentu honetan, periferiak asko dauka esateko, esanahi berriak sortzeko ere, periferiari lotzen diogun esanahia, topikoa aldatzeko. Seguruenik horietan sortzen dabilzan proposamenak (oro har Latinoamerikan) interesgarriagoak, eduki handiagoak dira, Europakoak baino, askotan aspergarriak ere badirenak.

—**Ostera, periferiek ez daukate laguntza ekonomikorik proposamenak zabaltzeko.**

—Termino horietan, Arte Garaikidearen arazorik handiena informazioaren zirkulazioa da. Orain proposamenen pilaketa bat dago, leku berdintsuetatik heltzen zaizkigu eta asebeteta gaituzte. Horrela egoteko arrazoia da proposamen horiek igortzen dituztenak izatea, hain zuzen, egitasmoak zirkulazioan ipintzeko gaitasuna daukatena. Ostera, XXI. mende berri honetan gertatzen ari denetik interesgarria dena hau da: teknologia berriei eta zirkulazio-sareei esker, irudiak edo proposamenak mugitzeko gaitasuna orain arte alde ekonomikoagaz zeukan lotura horretaz gabetzen dabilela. Alde batetik, orain

askoz errazagoa da ikusgai izateko gaitasun ekonomikorik ez daukaten proposamen horietaraino heltzea. Beste alde batetik, “periferia” ekonomikoetan (horrela deitzen diegu) kokatutako herriek informazioa ere eskuragarriago dute. Eta edozein lekutatik gutxieneko azpiegitura tekniko batez sortzen ari dena ezagutu genezake. Horregatik aldatzen ari dira mendebaldeko kanonaren inguruko kontzeptuak, bai sortzen ari denari buruz, baita joera bati eta ez beste bati garrantzia ematerakoan ere. Hori baino gehiago, egiletasunaren kontzeptua ere mutatu ari da,

## “Latinoamerika eta Txina arreta merezi duten proposamenak egiten dabilta”

dagoeneko bada sarean sortutako artea, bertan munduko hainbat lekutako pertsonen elkarrekintza dago, bakoitzak edozelako aldatzea, esku-sartzea gehitzen dio lanari. Hala egiletasuna urtu egiten da.

—**Gaitasun ekonomiko barik ere, periferiek beti aurkitzen dute beste bide bat. Argazkigintzan, zeintzuk dira bideak?**

—Jaialdiak dira agian, ezagun egiteko-eta erabili izan diren tresnak, esaterako Habanako Bienala, bienal zentralen (Documenta edota Veneziako) oso ezberdina dena. Artearen munduan gertatzen dabilenaz katedra ezartzen dutenak dira bienalak. Bienal batek, jaialdiak legez, hamaika gauza batzeko gaitasuna du. Horrela komunikabideen bidez proposamenak ikusgai bihurtzen dira; horietatik ez balitz, seguruenik ez lio-

tan interesgarria iruditzen zait, eta ikuspegi horretatik jaialdiek bi ezaugarri oso erakargarri daukate: bata, esandako oihartzun-kutxarena; eta bestea, lastertasuna. Museoei portatzen askoz ere motelagoa izan ohi dute, zerbaiti arreta ipintzen diotenerako eta programatzen dutenerako... 2-3 urte joan dira. Jaialdiek ia oraina orain aurkezteko gaitasuna dute.

—**Gaur egun nondik datoz argazkigintzaren proposamen berritzaileak?**

—Orain dela urte nahikotxotik hona, Latinoamerika proposamenak bai kontzeptual bai formalak egiten dabil; merkatuaren zein

Arte Garaikidearen zirkuituen arreta berezia merezi dutenak, gainera. Horrez gain, Asiako hego-ekialdean gertatzen ari denak ere zentrotan lekualdaketa eragin du. Baina ezin ditugu zaku berdinean sartu Txina eta Latinoamerika, kontu ekonomikoengatik. Txinari eskaintzen ari zaion arreta, ezin ahaztu, herrialde hori bihurtzeko merkatu indartsuari lotuta dagoela. Herri-potentziaren harrotasun sentimenduak daromatza artista txinatarrak euren sortzeko moduaren aldeko aldarrikapena egitera; modu hori bat dator euren gramatika propioakaz, beraien testuinguru geografiko-kulturalagaz ere. Horri gehitzen badiozu azken urteotako Txinaren hazkuntza ekonomikoa, eta ondorioz, Europatik, arte merkatuetatik eskaintzen dioten arreta...

## “Badirudi argazkigintza osasun bikaina daukan hilotza dela”

kete hainbesteko arretarik eskainiko. Jaialdiek niri oso erakargarri egiten zaidan zelabaiteko oihartzun-kutxa baten funtzioa betetzen dute, are gehiago periferiaren kasuan: agian herrialde bakar batek ez dauka bere burua ikusgai egiteko potentzia ekonomikorik, baina horrelako ekitaldietan hainbat herri bat egiten dutenez ikusgai bihurtzeko gaitasun handiagoa dute denek. Alde hori bene-

—**Baina Latinoamerikako egoera...**

—Bestelakoa da, horregatik ere interesgarria. Halere, Brasil benetan merezi duen lekuan jartzen denean... eta ez dute urte askok joan beharko! Arterari dagokionez, dagoeneko garrantzitsutzat jo dezakegu Sao Pauloko Bienala, sortzaile latinoamerikar askorentzat bultzatzaile izan delako eta munduko arte merkatuentzat erreferentzia-puntu iraunko-

rra. Bestalde, egonkortasun ekonomikoan hazten dabilzan herrialdeek, esaterako, Mexikok, Brasilek, Txilek, Argentinak eta Uruguai gero eta presentzia eta garrantzi handiagoa edukitzen duten heinean, Latinoamerikako arteak presentzia handiagoa lortuko du beste lekuetan, dagoeneko ari dira lortzen! Halere, gaur egun ezin dugu artea bere jatorrizko testuinguru ekonomikotik bereizi.

—**Gaia aldatuz. Balego, non du argazkigintzak bere desertua?**

—Gero eta desertu-eremu gutxiago ditu. Artearen esparruan, XX. mendean eta XIX. mendetik ere, letra larriz idazten den Artearen Olimpoan sartzeko egin duen desertuko ibilbidea honezkero amaitzeaz du. Hortaz konturatzeko 90. hamarkadatik euskarri fotografikoek Arte Garaikidean lortu duen garrantziari begiratzea baino ez dago! Ostera, jende askorentzat argazkigintzak izate dokumentala izaten jarraitzen du, gertatzen dena kontatzeko bitarteko modura ulertzen jarraitzen dute. Oraindik orain hor dago argazkia egiaren sinonimoa delako topikoa, eta guztiok dakigu esku-sartzeak daudela; begirada alde batera, eta ez bestera zuzentzeagaz, horregaz bakarrik, eskua sartzen zabilta, errealtatearen begiratu subjektiboa eskaintzen. Argazkigintzari hain arin lotzen diogun objektibotasun izaera hori

aldatzen doala uste dut. Belaunaldi berriek oso barneratuta dute dagoeneko, kontzientziaz dira argazkigintza ez dela errealtatearen notario, baizik eta bestelakoak kontatzeko tresna bat.

—**Ez dago argazkilari bako argazkigintzari, zein egoera bizi dute?**

—Ni hasi nintzenean ere, 80. hamarkadan, argazkigintzaren heriotzaz berba egiten zen. Eta aurreko egun batean esan nuen legez, badirudi argazkigintza osasun bikaina daukan hilotza dela. Bestalde, argazkilari belaunaldi oso bat ibili da, denbora luzez, aldarrikapen jarraitzaile; eta orain, begitantzen zait

## “Argazkigintza ez da errealtatearen notario, bestelakoak azaltzeko tresna baino”

argazkigintzak eta argazkilariok heldutasun garaia bizi dugula; nerabazarokeria gutxiago dugu, horregaz lotzen den aldarrikapen egoera, identitate propioa eraikitzen ibiltzea... gaintu dugu. Argazkilariak Arte Garaikidearen lurretan barneratuagoak sentitzen dira, eta horregatik indar handiagoa eskaintzen diote benetan artista batek eskaini behar dionari, hau da, sormenari, eta proposamen interesgarri, desberdin, erakargarriak egiteari. Zelanbait alde batera utzi da argazkiaren sta-

tus artistikoaren aldarrikapen historikoa.

—**Zer dauka begi bistan Castellotek?**

—Arreta handia eskaintzen diet Latinoamerikari eta Txinari; eta profesionalen arreta handiagoa merezi eta behar duela uste dut. Laster Brasil, Argentina eta Perurantz noa, eta Txinako argazkigintzaren proiektu bat jarriko dut martxan.

—**Besterik esateko bazenu, hona hemen horretarako aukera.**


—Getxophotora itzuliz, izaera honetako proposamen batek, gainera elkarte batetik jaio izanak eta ez erakundeetatik, nortasun oso berezia dauka. Lehen ekitaldi honetatik biga-

rrenetako bidea oinarritzkoa izango da neurtu ahal izateko zein gaitasun daukan, bere hiriko kultur programazio egonkorren barruan kokatzeko. Eta horrek erakunde publikoen laguntza handiagoa jaso beharko lukeela da nire iritzia, baina esparru sozialeko, zibileko laguntza edo bultzada ere behar ditu. Izan ere, bi horien arteko bizikidetzan, zibilaren eta kultur programazioaren artean, egongo delako Getxophoto lako jaialdi bati nortasuna emango dion erdigunea edo muina. ○

Bilatu zure Renault "Km.0" Bilbo Berri Getxo-ren web berrian

[www.seminuevosengetxo.com](http://www.seminuevosengetxo.com)

**BILBO BERRI**  
Bizkerre, s/n - ALGORTA. Tel. 94 430 68 81



# Getxophoto2007

UK-k sortutako Begihandi taldeak bultzatuta Getxophoto jaio da aurren; argazkilaritza, ezagutza, komunikazio eta, jakina, gozamen estetikorako tresna bezala ulertzen duen jaialdia. Getxophotok ezohiko formato, euskarri eta erakusketa espazioen aldeko apostu egin du, hauxe da bere bereizgarri azpimarragarriena. Kontua ez da hiria *apaintzea*, bereziki aukeratutako irudien bitartez hiria bera istorioak kontatzeko erabiltzea baizik. Etxaurreak, erakusleihoak, lorategiak edota eraikinak, Getxo erakusketarako espazio bizi bihurtu nahi izan dugu, "marko ireki" handi bat. Orrialdeotan honen guztiaren adibide batzuk dituzue.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**

[www.getxophoto.com](http://www.getxophoto.com)



MUGARIK GABEKO MEDIKUAK GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK KOLONBIAKO EGOERARI BURUZKO IRUDEKIN BETE ZUEN AZOKAKO ETXAURREA



ZEUTA-MELILLAKO HARRESIAREN INGURUAN SERGIO CAROK ATERATAKO ARGAZKIAK EGON DIRA GAINZA PARKEKO ZUIHAITZETAN ESKEGITA



PUNTA BEGOÑAKO HORMAK VENEZUELAKO ANTONIO BRICEÑO K EGINDAKO HEGO AMERIKETAKO XAMANEN ARGAZKIEK BETE ZITUZTEN



PERUKO JAVIER SILVA-MEINEL ARGAZKILARI HANDIAK BERE HERRIKIDEEN ERRETRATUAK PARATU ZITUEN HERRIKO LIBURUTEGIKO BALKOJETAN



MARCOS LOPEZEN ASADO EN MENDIOLA ALGORTAKO AZOKAN



PERUK BIZI IZAN ZITUEN INDARKERIAZKO URTEEI BURUZKO ERAKUSKETA IKARAGARRIA, UTZITAKO LONJA BATEAN IPINI GENUJEN




GETXOPHOTOKO BEHARGIN BI PORTU ZAHARREAN LANEAN



RICKY DAVILAK IBERICA BERE SERIEKO BOST ERETRATU ERRALDOI IPINI ZITUEN GETXO ANTZOKIAN



DENDETAKO ERAKUSLEIHOETAN RIO DE JANEIROKO FAVELETAKO ARGAZKILARIEN LANAK IPINI ZIREN



JUAN SANTOSEN ARGIKUTXAK BASAGOTI KALEAN



MANUEL VÁZQUEZ KOLONBIARRAREN LANA ALGORTAKO METRO GELTOKIAREN SARRERAN



MARCOS LOPEZ ARGENTANARRAREN EL SIRENO-K ABRA ZAINDU DU MARIA KRISTINA PARKEKO TALAIAK



IGOR ELORTZA, UNAI ITURRIAGA, SUSTRAI COLINA ETA XABI PAYA BERTSOPHOTO SAIOA ASMATU ZUTEN



EREAGAKO IGOGAILUAN IPINITAKO ARGAZKIA

I

# Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 430 23 45  
Telletxe 1 T: 460 27 41

Algorta

**OSABIDE HORTZ KLINIKAK**  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96

## Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

# GAVRKO

GIZONENTZAKO  
MODA

Telletxe 5  
ALGORTA  
T: 4607084

## María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobari 10  
T: 4910821  
ALGORTA

HARTU TXANDA

[zinema]

## Donostiako Zinemaldia

Euskal Zinemaren Egunean eskainitako lanei ezin begirada kendu



Akelarre filmaren irudi bat

**Donostiako** Nazioarteko Zinemaldiak 55. urteurrena bete du oraintsu, eta gure lurretan zinearen inguruan egiten den jaialdirik "glamourdunena" ei denez, bada ezin izan gara harantz begiratu bat bota barik lotu. Hori bai, begirada bereziagaz bueltatu dugu burua eta zehazki aurten 10. urteurrena bete duen Euskal Zinemaren Egunean ipini dugu arreta. Han pantailaratu direnak aurrerantzean hurbilgoko zinematari ikusteko aukera izango dugulakoan, horra hor aukeratu zituzten filmak.

Halere, filmen berri eman baino lehen, aipatu beharrekoa da, betiko eztabaida alde batera utzita (euskal zinea?, zine euskalduna? gure lurretan ekointzia?), antolatzaileek azaldu legez "Euskal Herrian ekointzitako edota euskal zinemagileek egindako filmak" direla denak, baina euskaraz izateko ziurtasunik ez dagoela; halere, zelanbait "euskal txartela" dute. Hala, Euskal Zinemaren Egunean 10 film luze eskaini zi-

tuzten, besteak beste: *Cristobal Molon, Betizu eta Xangaduko Misterioa, Eutsil, La Influenzia, Caotica Ana, Trus un largo silencio, Dos rivales casi iguales* eta *La sombra de nadie*. Horren albotik, Euskadiko Filmategitik berreskuraturako bi lan eman zituzten (*Gente del mar* eta *Akelarre*) eta 17 film

**«Besteak beste, 10 euskal film luze eta 17 film labur ikusi ahal izan ziren»**

labur pantailaratu ziren (Kimuak programako film labur onenen aukeraketa, horien artean). Horrez gainera, Donostiako Zinemaldiko beste sail batzuetan "euskal txarteldun" beste lan batzuk ikusteko aukera ere izan zen, berbarako: *Cosmos, El año de todos los demonios, Lucio, Querida Bamako...* eta umeei begirako euskaratutako 3 film ere eskaini ziren: *Izotz Aroa (Ice Age), Piccolo, Saxo eta konpainia* eta *Inabazleak eta galtzaileak*. ○

[musika]

## Udagoien koloretan... doinuak

**Perretxiko** beste disko kaleratuko dira hurrengo hilabeteotan, gozatu gustuko saltsan!



Bakarkako ibilbidean Gariren bigarren lana, *Esperantzara kondenatua*, kalean dago

**Udagoiengan** arbolatuko orri andana erortzen den legez, otzarak perretxikoz gora arte betetzen ditugun moduan plazaratuko dira euskal disko berriak urtaro honetan. Durangoko Azokara itxaron beharrik ez dugu izango, gainera, batzuen kasuan. Ondorengo lerrootan ez daude eroriko diren denak, baina dauden guztiak udazken kolorez margotuko dute plaza. Elkar argialetxe handiak hurrengo talde edo bakarlarrien lanak argitaratuko ditu: Mikel Laboa (*Lekeintxoak*, berrargiltapena; azaroa), Gari (*Esperantzara Kondenatua*; kalean), Oskorri (*11. Pub Ibiltaria*; urria), Jabier Muguruza (*Komplizeak*; urria), Txirri, Mirri eta Txiribiton (*Sudur Gorria*)... Oihuka diskoetxeak:

Governors, *Gaztea: The Singles* bilduma, Ken 7 (*Argia*, azaroa)... Brixton Records erromotarrak ere baditu nobedadeak: New York Ska Jazz, Esemble, Akatz... Gaztelupeko Hotsak-en otzaran daude: Txuma Murugarren (*Marjinalia*), Petri (*On*; urria), UeK (*Uhinak*), Surfin Kaos... NoizPop zigiluarenak dira: Xabier Montoia (*Deus gutti*), Le Noise (*El camino a casa*), Audience (*Trying wings on roots*)... Baga-Bigak, berriz, Muted, Noizean Behin, Kalte eta Etsaiak-en lan berriak kaleratuko ditu; Gor-ek Berri Txarrak-en dvd-a (*Zertarako amestu*); Bonbereneak Deabruak Teilatuetan 1973 lan berria dakar; eta Mikel Urdangarinek ere *Anek idatzi dit zutaz* lana aurkeztuko du. ○

## Iparraldetik > Gazteen musika

Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako talde gazteen kantuak hirugarren *IK3* diskoa kaleratu du Hendaia Lanetik Egina elkarteak. Dagoeneko elkarteak ekoizten duen mota honetako hirugarren lan honek hamar talderen kantuak biltzen ditu. Iparraldeko talde "maketero"-en bilduma egiteko apustua egin zuen Lanetik Egina elkarteak orain dela 3 urte, musika talde gazteen bozgoragailuaren oihartzuna zabaltzeko helburuagaz. Bildumak CAEM-sud eta Credit Agricole bankuaren gazte atalaren laguntza jaso du argitaratu ahal izateko. Aurtengo diskoak euskaraz abesten duten taldeak ere aurkeztuko dizkigu, besteak beste: Mak, Paco ta Marieder eta Okabe.

## diskoa > Gu Ta Gutarrak

Igor Elortza eta Unai Iturriaga bertsolariek eta Josu Zabala musikariak azken boladan hamaika herritan aurkeztu duten Gu Ta Gutarrak bertso-musika ikuskizuna CD batean bilduko dute eta urrian aurkeztuko dute hortik sortuko den diskoa. Iragarri dutenez, "gutako bakoitzaren baitan bizi diren hamaika gutarrei buruzko bertso-kantak" gordeko ditu diskoak, "euskal herriei, gauari, maitasunari, politikari, ametsi, amorruari, bizi-pozari..." abesten diote bertan.

## diskoak

**La columna vertebral**  
Eko4  
Gor



90. hamarkadako trash-metala berpiztu gura du Eko4 taldeak. *La columna vertebral* diska metal gogorra eta indartsuarekin buzti dute. Zarata eta ohiuak dira nagusi; haien helburua hitzak biolentziaz ixuritzea da. Sepultura, Pantera, Machine Head eta Koma bezalako taldeetatik influentziaturik, adierazpen hutsa bilatzen dute.

**Marjinalia**  
Txuma Murugarren  
Gaztelupeko hotsak



Sasoilunak taldeko abeslari eta gitarrista ohiak bere postgarren diska kaleratu du 2000. urtean bakarkako ibilbideari ekin zionetik. *Marjinalia* orain arteko bilakaeraren sintesi gisa uler daiteke inoiz baino lirikoago agertuz. Giro ilun eta dekadentea da nagusi.

**Las aceras están...**  
Marea  
Dro



Marearen lan honek DVD bat dakar, non azken biraren barnean Badalonan eman zuten kontzertu osoa biltzen den. Aipatzekoa da Evaristo (La Polla) eta Brigi (Koma) abeslariak kolaboratu egin dutela. Diska honek sekulan egindako birarik indartsuarenari bidea ireki dio.

## DIDAK hamilton IDIOMAS

### Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
  - Eskolaz kanpoko ekintzak
  - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
  - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.  
Tel: 94 676 30 12  
info@didakhamilton.com

## 4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA  
Ituribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

## ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA  
Tfnoa.: 94 676 02 66  
Email.: sopela@ikastola.net

[liburuak]

## Unibertsal gehiago euskaraz

**Sabato, Achebe eta Bufalinoren** lan bana euskaraz irakur daiteke daborduko

**Ernesto Sabato**, Chinua Achebe eta Gesualdo Bufalino idazleen liburu bana euskaratu dute Mikel Garmendia, Alberto Martinez de la Cuadra eta Josu Zabaleta itzultzaileek, hurrenez hurren.

Lanok itzultzeko beharra iaz esleitu zuten eta dagoeneko Literatura Unibertsala bildumaren zerrenda osatzen dute. Elkar eta Alberdania izango dira liburuok banatzeaz arduratuko diren argitaletxeak.

Ernesto Sabato (Rojas, Buenos Aires, 1911) argentinarrak 1948an argitaratu zuen *Tunel* nobela, Garmendiak (Tolosa, 1961) oraintsu euskarara ekarri duena *Tunela* izenburupean. 10 hizkuntzataratu izultitako nobela alor psiko-poliziakoan sartu dute aditu askok, zenbaitek existentsialismoaren ingurukotzat lerratu du.

**«Tunela, Gainbehera dator dena eta Gaueko gezurak eleberriak kalean dira»**

Chinua Acheberi (Ogidi, Nigeria 1930) *«Afrikako literaturaren aita»* titulua ipini zioten nozbait. Martinez de la Cuadrak (Bilbo, 1966) *Gainbehera dator dena* legez euskaratu duen *Things fall Apart* (1958) izan zen afrikarrak plazaratu zuen lehenengo eleberria. Kolonialismoaren mekanismoak eta zapalkuntzak



Chinua Achebe

Afrikar eragindako ondorioen aztarnak aurki daitezke nobelako lerro eta berba bakoitzean. Halere, hau ez da Acheberen lan hori euskaratzeko egin den ekimena, 1991n argitaratutako *Kitto dena* liburuarekin ere hor dago.

*Gaueko Gezurak* da Josu Zabaletak (Legazpi, 1948) Gesualdo Bufalinoren (Comiso, Sizilia 1920-1996) *Le menzogne della notte* (1988) nobelari ipini dion izena. Lan horregatik jaso zuen italiarrak Strega sari entzutetsua. Horren albotik, gaur egun euskaraz goza ditzakegun hiru idazle hauek, hirurak ere, hamaika aldiz saritu ditu nazioarteak. Halere, sarien esanahiaz zalantzak daukanari esango diogu hiru horien lanak literatura unibertsalaren osagai direla. ○

liburuak



**Gaueko gezurak**  
Gesualdo Bufalino  
Elkar

Kartzelan preso dauden lau gizon erregearen kontrako talde iraultzaile bateko partaide izateagatik: baroia, olerkaria, soldadua eta ikaslea. Heriotza-zigorra dute lauren zain eta sententzia bete aurreko gauean solasean dabilzala, euren bizitzako istorio bana kontatzea erabakitzen dute.



**Picassoren zaldia**  
Asier Serrano  
Elkar

Asier Serrano kantari eta poetak bere bigarren olerki-liburuarekin kaleratu du. Amodioaren eta borrokaren hiztegiak nahastuz, aspaldiko maite batengana itzultzen da poeta, lehenengo sinesmen eta ekintzei ikuspegi eszeptiko eta askotan ziniko batez begiratuz.

[kirola]

**Juan Carlos Gernika** > Arkote traineruko patroia

**«Mailari eustea** lorpena baino taldearentzako **lasaigarri** bat izan da»



Argazkian, Juan Carlos Gernika

**Arkote** Arraun Taldeak azkenean mailari eustea lortu du asko kostata. Irailaren 23an erlojupeko baten bitartez argitu zen igoera-jaitse-rako *play-off*a. Plentziako taldeak denboraldi osoan zehar edukitako emaitza kaxkarrak irauli ditu San Miguel Ligako azken txanpan.

Juan Carlos Gernika Arkote traineruko patroia da 1987. urtetik hona. Berak onartu duenez, *«ez genuen espero hain denboraldi eskasa egingo genuenik, maila ona daukagu eta»*. Bere esanetan, azkeneko momentuan mailari eustea lorpena baino *«lasaigarri bat»* izan da. *«Hori da gertatzen zaizuna boga ondo hartzen ez duzunean; asfixiatu egiten zarela eta ez duzula aurrea egiten»*.

Hala ere, Plentziako taldeak ez du zorte handirik eduki denboraldi hasieran, baja ugari izan baititu, batzuk lesionaturik eta gainontze-koak, berriz, beste klubetara igarota. *«Horrenbeste baja edukitzea eta jendez hain justu ibiltzea asko nabaritzen da talde berri bat osatu behar delako»*, adierazi du Juan Carlosek.

*«Baja hauek guztiak taldeko tituluak ziren, noski, horrela izan ez balitz, ez zen hainbeste nabarituko»*.

Behin denboraldia bukatuta, hurrengo urteari begira egon behar du halabeharrez eta plentziarrak aitortu duenez, aldaketa asko izan daitezke arraun taldean. *«Badakit baja batzuk»*.

**«Boga ondo hartzen ez duzunean asfixiatu egiten zara eta ez duzu aurreratzen»**

*egongo direla datorren urtean: arraunlari batzuk aita izan dira aurtien eta taldea uztea erabaki dute; baten bat beste klub batera joango da...*

*«Hala eta guztiz ere, ezin daiteke ezer egiaz-tatu: maiz gertatzen da jarraituko ez dutela di-notenek azaroan baietz esatea. Kompetitzeko beharra datorke askotan»*, gaineratu du Juan Carlosek.

Esan bezala, azaroan hasiko da hurrengo denboraldia eta ikusteke dago Plentziako arraun taldearen bilakaera. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA  
KIROL MODA



**350 M<sup>2</sup>**  
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO  
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXeko ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

**Lacofris S.L.** SERVICIO



- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

T. 94 430 52 00 Kasune, 18 · ALGORTA

**GOIZEAN**

*«Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa»*  
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarrieriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13  
T: 430 22 13 T: 460 02 88  
GETXO ALGORTA

**Amaia Nerekan** > IBAIAko komunikazio arduraduna

“Egia esan, Euskal Herrian zinemara joateko ohitura gitxi daukagu”



Argazkian, Amaia Nerekan

Amaia Nerekanek urteak daramatza IBAIA(n (Ikus-entzunezko Euskal Ekoizle Burujabeen Elkarte) murgildurik. Baina Joxe Portelak zuzenduriko elkarte honek irailean hamar urte bete zituen eta gaur egun, 35 enpresek osatzen dute. Amaiak argi utzi digu IBAIAk ekoizle burujabeak batzen dituela, eta horrenbestez, ez daudela inolako telebista kate edota entitate zehatz baten menpe.

—Zertan datza IBAIA?

—Elkartea euskal ikus-entzunezkoak sustatu eta hobetzeko asmoz sortu zen orain dela hamar urte, eta gaur egun horretan jarraitzen dugu.

—Zein da gaur egungo euskal ekoizleen egoera?

—Euskal Herrian baditugu oso profesional onak baina ekoizteko baldintzak oso zailak izaten dira gehienetan. Sormena egon bada, baina hemen industria falta da. Betiko kontua, diru gutxi dago. Tamalez, hori dela eta, askok Madrilera edo Bartzelonara jotzea erabakitzen dute. Euskal zinema egitea nahi-

ko latza da, are gehiago euskaraz egiten baduzu. Horren adibide, azken hiru urte hauetan hiru pelikula baino egin ez izana da. Telebista egitea berriz, errazagoa da.

—Orain “Lau haizetara” foroan zabilzate, azalduko al diguzu hori zer den?

—Donostiako Zinemaldiko “Zinea eta Europako eskualdeak” jardueraren barruan garatutako produkzio foroa da. Honela, mugaz bestaldeko lankidetzak bultzatu gura dugu. Pirinio inguruan dauden herrialdeen lankidetzak sustatzea da helburua. Bertan, ekoizleen eta zine-banatzailerien telebista kateen arteko harremana sortzen da. Aurten

adibidez, hogeitauko proiektu aukeratu ditugu aurkez ditzaten: fikziozko hamar pelikula eta hamar dokumental. Ekoizle bakoitzak bere pelikularen proiektua aurkeztu ostean, telebista kateek eta zinema banatzaileek horretan inbertitzea edo ez erabakiko dute. Finantzetan bide bat da azken finean.

—Zinemaldia aipatu duzula, bertan IBAIA saria banatu duzue. Zein irizpide jarraitzen da saria emateko?

—Elkarteko 35 bazkideren artean egiten da hasierako proposamena. Bakoitzak proposamena bota ostean, batzar orokorreko bederatzikideren artean aukeraketa egiten dugu. Jakina, proposatutako pelikula guztiak ikusi

«Hemen sormena egon badago, baina industria falta da»

beharra dago. Aurten, ez da arazo handirik egon ia aho batez erabaki baita. Gehienentzat *Querida Bamako* pelikula izan da onena.

—Jendeak gustuko al du euskal produkzioa?

—Egia esan, Euskal Herrian zinemara joateko ohitura gitxi daukagu. Europako beste herrialde batzuetan, adibidez, sarriago joaten da jendea. Hemen, berriz, gitxitan hurbiltzen gara zinemara. Gainera, gero eta garestiagoa da, eta hori ezin da ukatu. Orokorrean jendeak gustuko duela uste dut. Bestalde, euskal animazioak oso harrera ona duela aipatu beharra dago. Leihatila mailan emaitza onak lortzen ari dira, izan ere kalitatezkoak dira. Aitzitik, fikziozko pelikula politak ere ekoizten diren arren, hauek ez dute horren harrera onik. Hau ez da Euskal Herriko egoera bakarrik; oro har, zinema ekoiztea ez da errentagarria izaten. Beharbada, AEB dira salbuespen bakarra. o



MAITE DUT **FUTBOLA**

eta **CANAL+**-en  
DEN DENA DAUKAT

CANAL+  
**19,95** €  
tik hilabetean

Orain, bi hilabetez, jardunaldi bakoitzeko partida bat **DOAN**

Abono zaituzte



**DIGITAL+**

Golenkale, 5. Plentzia.  
TLF.: 94 677 03 36

URIBE KOSTAKO ZERBITZU MANKOMUNITATEKO  
**EUSKARA ZERBITZUA**  
Barrika - Berango - Gorliz - Lemoiz - Plentzia - Sopelano - Urduliz

**URIBE KOSTAN ERE EGIZU EUSKARAZ**



**Hauexek dituzue urte amaiera arte dauden ekintzak**

- **Murgiltze-astea.** Mankomunitateko ikastetxeetan DBHn hasten diren gazteei zuzendutako aste berezia.
- **Irakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina.** Institutuko gazteen artean Gaztetxulo aldizkaria ezagutuko dute eguneko gaiak euskaraz ere lantzeko.
- **Zenbait diru-laguntza, herriz herri.** Euskara ikasteagatik eta udako ikastaroetan parte hartzeagatik udalek dirulaguntzak eskaintzen dituzte.
- **Ikastetxeetarako emanaldiak.** Ikasturtean zehar hainbat emanaldi eskaintzen dira ikastetxeetan euskara bultzatzeko.
- **Birziklatzeari buruzko ipuinak.** Birziklatzea zer den umeei azaltzen dien ipuina, ingurumenarekin konpromisoa hartzen hasteko.
- **Euskararen eguna, herriz herri.** Abenduaren 3a ospatzeko, herriz herri ekintzak antolatuko dira azaroaren azken astean.
- **Txoko ibiltaria.** Euskarazko produktuen katalogoan agertzen diren joko eta liburu asko esku artean ikusteko aukera izango duzue azaroaren amaieran.
- **Euskarazko produktuen katalogoa.** Gabonetan euskaraz oparitu ahal izateko oparien bilduma bat sortu da.
- **Ipuin lehiaketa.** Hamargarren urteurren honetan, gure gazteek beraien imajinazioa noraino hel daitekeen erakutsiko dute.
- **Olentzero inguruko ekintzak.** Gutunak, tailerrak, antzerkia, oparia... ondo portatzen diren txikiak.

**Eta hori guztia euskaraz. Horregatik,  
URIBE KOSTAN, KOSTA ALA KOSTA, EUSKARAZ**







Getxoko eskaltegiak eta Bizarra Lepoanek osatzen dute EGIZU, eragileok elkartuta lana hobeto egin dezagun.

egizu!

Berbalagun taldeak biltzen gara euskaraz berba egiteko, adinen eta zaletasunen arabera, kirola, kultura eta parranda euskaraz bizitzeko.

Euskalduna bazara lagundu diezaguzu Getxon euskaldun komunitatea indartzen eta euskaldunon sarea zabaltzen.

Ikasten ari bazara parte hartu zure ikasketa prozesua osatzeko eta mintzapraktika egiteko euskaltegitik kanpo.



izena emateko opea urriaren 31ra arte zabalik!

Karitatea, 1 -sotoa-10  
48991 Algorta GETXO  
689 935 541 | 94 491 43 57  
egizugetxo@yahoo.com

Gure jardueretako argazkiak:  
[www.flickr.com/photos/egizu](http://www.flickr.com/photos/egizu)  
eta kronikak:  
[www.blogarinet/egizu](http://www.blogarinet/egizu)

# HAMEKO BERBE IKISI GURE DOGU

Bizkaiera **Ikastaro aitzindaria** iminiko dogu martxan; teoria eta praktika uztarturik, 100 orduko ikastaroa, Labayruk homologatua. Urrian hasita Aste Santuko oporrak arte, bizkaiera estandarra eta gure eskualdeko eta herrietako bizkaiera landuko dogu. Martitzen eta eguenetan, 20:00etatik 22:00etara, **egun batean teoria eta bestean mintzapraktika**. Mintzapraktika saio honeetan, nonoz, **eskualdeko gonbidatuak** ekarriko doguz. Garrantzi berezia emon gura deutsagu praktikotasunari eta gure asmoa da behin ikastaroa amaituta eta ikasleek gura badabe bizkaierazko Berbalagun taldea sortzea Getxon. Prezio bi egongo dira: Bizarra Lepoaneko bazkideentzat 150 € eta bazkide ez diranentzat 200 €.

Informazioa eskatzeko eta izena emateko:  
**94 491 43 57 / [bizarralepoan@euskalnet.net](mailto:bizarralepoan@euskalnet.net)**



## La Centralita

Arin eta ondo jateko aukera Erandion



Argazkian, La Centralitako lan-taldea

**Auzoko** gazteen topagunea zen zentral elektrik hartu zuten Robertok, Javik eta Oscarrek jatetxerako izena. 2006ko abuztuan ireki zituen ateak Astrabuduako bihotzean dagoen La Centralita jatetxeak. Robertok eta Oscarrek eskarmentu handia daukate ostalaritzan eta ondo asmatu dute La Centralitako eskaintza finkatzerako orduan: *"Auzoak dituen beharizantzei erantzun nahi izan diegu; ez dago janari azkara eta kalitate onekoa eskaintzen duen tabernarik inguru honetan"*. Eguenetik domekara zabalik dagoen arren, enkarguzko bazkari eta afariak antolatzen dituzte asteko egun guztietan: *"Enpresa, lagun koadrila edo talde handientzako menuak prestatzen ditugu nahi izanez gero"*. Janaria etxera erroteko aukera ere badago.

Plater konbinatuak, bokatak, entsaladak... denetarik dago: *"Janari azkara da, baina lan-*

*dua; ez ditugu betiko hamburgerak eskaintzen"*. Ikasturte berria ondo hasteko, karta berri du-te, pasta, salteatuak eta beste espezialitate batzuk gehituz. Orain arte, oso ondo erantzun du jendeak: *"Asteburuetan jende pila dator; astean zehar guxtiago hurbiltzen dira eta hori aldatzea gustatuko litzateke"*.

Bariku eta zapatu gauetan giro lasaia aurki daiteke La Centralitan: *"Mahaia kendu, 80ko hamarkadako musika edo musika tematikoa jarri eta jendea gustura egotea nahi dugu. Auzoko jendea asko mugitzen da bemendik, fidela da"*. Jaiak antolatzeko aukera ere badago: *"Momentuz ezkontza osteko jai bat ospatzeko enkargua daukagu; ikusiko dugu proposamen gehiago luzatzen dizkiguten"*. ○

**San Lorenzo z/g, Astrabudua**  
Tel.: 94 656 64 18

**KONTXI**  
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,  
Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA  
T.: 94 491 02 93

**GOZOLABEA**  
**GALDARETXE**

• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25  
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29  
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58  
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14  
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

**ARTAZA ETXEA**  
JATETXEA

- gozariak
- txuletoia • makailua
- arrain freskuak

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92  
Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25  
AREETA

**Asador**  
**Goieztzi**



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
- Egunero karta berezia
- Gazez dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
- Jaun hartze bazkariak zure gustura prestatzen ditugu.

Aretxondo 14  
Algortako Portu Zaharra / Getxo  
Erreserbak: 94 491 25 93



**ITXASGANE**  
prentsa • aldizkariak  
GETXOKO KIROL PORTUA  
Aritluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

**BATIZ KRISTALDEGIA**



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)  
T:94 430 69 42 /ALGORTA

[horoskopoa]

<p><b>URA</b></p>  <p>(Abenduak 21 - urtarrilak 19) Osasuna eta dirua zeure alde dituzu, baina ez, ordea, lagunak. Badakizu zure umorea eguraldia bezain aldakorra dela, eta liskar bat baino gehiago izan dezakezu umorearen kontura.</p>	<p><b>OTSOA</b></p>  <p>(Urtarrilak 20 - otsailak 18) Azken boladan triste eta goibel zabilta. Baina aspaldian ikusi ez duzun lagun baten bisitak asko pozuruko zaitu. Berarekin ahaztuta dituzun tokiak eta pertsonak berrikusteko aukera izango duzu.</p>	<p><b>ADARRA</b></p>  <p>(Otsailak 19 - martxoak 20) Azkenaldian bikotekideagaz denbora asko igarotzen duzu, eta hori oso ondo dago, baina lagunak ez ahaztu. Beharrezan zabiltzanean kontu handiagoa izan beharko zenuke, gero ezusteko txarrik izan ez dezazu.</p>
<p><b>AITZURRA</b></p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Urrun daukazun familiako kideagaz askotan gogoratzen zara. Zergatik ez diozu noizean behin idatzen? Ondo etorriko zaizu, eta berak biziki eskertuko dizu. Mendira joaten zaren bakoitzean, berehala nekatzen zara; sarriago joaten hasi beharko zenuke.</p>	<p><b>HOSTOA</b></p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Arazoei behar baino garrantzi handiagoa ematen badiezu, azkenean zoratu egingo zara. Gaur egungo teknologia berriak ez zara oso ondo moldatzen; baina lasai, denboragaz eta pazientziagaz dena ikasten da.</p>	<p><b>EGUZKIA</b></p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Batuetan hobe da isiltzea eta arrazoia besteei ematea, baina zuk ez dakizu ez bata, ez bestea egiten. Aterki txiki horregaz ez duzu lortuko euriarik babestea, eta blai eginda lotuko zara.</p>
<p><b>GARIA</b></p>  <p>(Ekainak 19 - uztailak 18) Aspertuta zaudela askotan esaten duzu, baina egoera hori konpontzeko ez duzu ezer egiten. Denetan azkarrena zarela sarri erakutsi duzu, baina azkarrena izateak ez du esan gura adimentsuena izatea.</p>	<p><b>LASTOA</b></p>  <p>(Uztailak 19 - abuztuak 17) Buruko minaz bazabiltza, eta lasaiago geratu gura baduzu, medikuarenera joan beharko zenuke. Autoa zer moduz dabil, Garia? Lantzean behin, zelan dabilen ikusteko, azterketa sakon eta orokorra egin behar zaiola gogoratu.</p>	<p><b>IRATZEA</b></p>  <p>(Abuztuak - 18 irailak 16) Daukazun gastuak gutxiti egin behar dituzula? Parranda gutxiago egin, eta ederto gutxituko zaitzazu. Amets ugari egiten dituzu gauean, baina goizean, esnatzerakoan, egunerokotasuna nagusitzen da.</p>
<p><b>META</b></p>  <p>(Irailak 17 - urriak 16) Baina zertan ibili zara daukazun itxura xelege horrekin? Ez zarela gogoratzen? Orduan primeran pasatuko zenuen, ziur. Behin eta berriro egiten duzu gauza bera: besteen lepotik barre egin, eta zeure burua babestu.</p>	<p><b>HAZIA</b></p>  <p>(Urriak 17 - azaroak 15) Inoiz baino indartsuago zaude. Zeure buruarekiko erakusten duzun konfiantza horrek asko lagunduko zaitu, batez ere zure familian egon daitezkeen gorabehera ezberdinei begira. Izan ere, zeu izango zara oinarrizko euskarrietako bat.</p>	<p><b>NEGUA</b></p>  <p>(Azaroak 16 - abenduak 20) Bizitza profesionalan izugarritzko aurrepaua emango duzu eta horrek egonkortasuna sortuko du zeure inguruan. Txikitako beldurrak barru-barruan dituzu oraindik. Ordua da horiek gainditu eta zeure benetako izaera garatzen hasteko.</p>

Getxoko Andra Mari Zerbitzu Estazioa

Txartel hau aurkezten baduzu  
**%50 merkeago** garbituko dizugu autoa!!!!

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km  
Getxo / Tel: 94 430 15 00



etorri eta ikusi!!

**ORIXA**

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)  
Tfn.: 94 491 23 79  
Algorta



**MUNGIÀ**  
**OKINDEGIÀ**

Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.


KASUNE 28 - T: 94 430 10 76  
ALGORTA



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuin

1. Maileguan utzia. 2. Gipuzkoako herria. Kontsonantea. 3. Lepoko. Musika nota. 4. Etorri aditzaren erroa. Betileen edergailu. 5. Gai-sorta. Joan zaitez. 6. Suzko gas masa argitsuak. Alfabetatzerako erakundea. 7. Aluminioaren ikurra. Orioko. 8. Katalanez, deus ez. Santu. Bostehun. 9. Kantari katalana, Xativan sortua. Ore jangarri. 10. Iparretarrak. Dago. Eguzkia.

Goitik behera

1. Ahalmen miragarriak dituen alegiazko emakume. 2. Ardo edaleak. 3. Irurako. Musika nota. 4. Behar, egiteko. Guzti. Milia eta bostehun. 5. Eseri aditzaren oina. Alkohol edaria. 6. Hari, gaitzen. 7. Gai bakun baten zatiki. Zintzo. Bokala. 8. Infusio mota. Laztanak. 9. Uranioaren ikurra. Zingira eta paduretako belar-landare. 10. Zati. Ahariaren emea.

Soluzioak

V	I	K	E	V	D	K				
I	H	V	N	O	M	I	V	R		
D	E	N	O	D	S	R	E	S		
R	V	T	O	R	O	L	V	A		
V	A	K	R	V	G					
Z	V	O	Z	O	V	Z				
L	E	M	I	R	O	T				
L	A	O	K	E	N	D	I			
T	E	S	A	T	E					
U	A	T	G	A	L	E				

asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Donostiako semea
- Lapiko artean ederto moldatzen da
- Orain dela gutxi, hirugarren Michelin izarra eskuratu zuen.

> Aurrekoaren erantzuna: Gerry Adams  
> Irabazlea: **Andone Amezaga\* (Getxo)**

\*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako degustazio berezia zozketatuko dugu:  
UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo  
uk@aldizkaria.biz

Usategi kafetegia



Usategi parkea z/g, Algorta  
Telf: erreserbak: 94 460 64 13

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Jurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI  
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

CAFE usategi ALGORTA  
Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13



RAMON URIARTEK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Areetakoa Ondarreta Abesbatza 1976an

Areetakoa Ama Mesedeetako parrokiaren sortu zen 1967an, "Ama Mesedeetako Eliz Koria" Sestaoko Bonifazio Oztaren (GB) gidaritzapean (1967-75). Gaurko izena, Ondarreta Abesbatza, 1973an aukeratu zen. Hurrengo urtean, 1974an, beste batzuekin batera Bizkaiko Aste Korala sortu zuten, orduetik urtero Begoñako Basilikan ospatu izan dena.

Argazkia, hain zuzen, bertan aterata dago, Bizkaiko Hirugarren Aste Koralean, orduan Nicolas Torre (GB) zuzendaria (1975-77) zela. Datu bitxia, argazkian daudenetatik lauk jarraitzen dute bertan kantatzen: Ramon Uriarte, Rosa Maria Fabrique senar-emazteak, Francisco Matauco eta Manuel Torre Lledo, gaurko zuzendaria (1977-2007), orduan korukidea eta orduko zuzendariaren semea.

Euskal Herrian eta kanpoan hainbat ekitalditan ibilia da abesbatza hau: Alemanian (1979,81,93), Belgikan (1985), Galizian, Katalunian... zerrenda luzeegia hemen aipatzeko.

Aurten, 40. urteurrena ospatzeko 17 kontzertu inguru eskaini dituzte eta, batez ere, kontzertu berezi bat prestatzen dabilza, datorren urriaren 6an Euskalduna Jauregian egingo dutena. Zorionak Ondarreta! ○

Gizonezkoak

Ramon Basterretxea, Pedro Goiri (GB), Alberto Heredero, Blas Abrisketa, Jose Ramon Penades (GB), Pedro Luis Raton (GB), Rafael Castaños, Jaime Raton, Francisco Matauco, Juan Jose Larrazabal (GB), Alfonso Arriola, Fernando Camba, Iñaki Muguruza, Rafael Garcia-Etxabe, Jose Maria Jauregi, Ramon Barruetabeña (GB), Jose Manuel Fernandez, Manuel Torre Lledo, "Trucho", Sabino Elordui-Zapatarietxe (GB), Juan Mari Agirre, Jose Luis Beitia (GB), Jesus Angel Ugarte, Juan Garcia, Ramiro Modrego, Jose Baudor (GB), Josu Sesumaga (GB), Ramon Uriarte, Andres (?), Fernando Valle, Nicolas Torre (zuzendaria,GB).

Emakumezkoak

Goiko lerroa: Rosa Maria Fabrique, Esther Toquero, Conchi Basterretxea, Irene Barruetabeña, Inmaculada Peña, Carmen Arteaga (GB), Isabel Basterretxea, Maria Luisa Armada (GB), ?, ?, ?, Isabel Garcia (GB).  
Beheko lerroa: Ana Isabel Uriarte, Mari Mar Zabala, Ana Mugarra, Cristina Peñas, Maria Victoria Zubizarreta, Blanca Arriola, Araceli Herrera, Blanca Larrazabal, Amaia Olabarrieta, Pilar Aspiunza, Mari Carmen Basterretxea.

[aitormenak]

**ROBERTO MOSO** > kazetaria eta idazlea

## “Benetako bizioak ez dira aitorgarriak”

Testua: **Ander P. Goikoetxea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**



**Defini ezazu zeure burua berba bitan.**

Nahiko nahastuta.

**Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**

*Pretty Woman*, Julia Robertsena egingo nuke.

**Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?**

Zaila. Mirestea gainera... Karl Marx.

**Ohitura txarren bat al daukazu?**

Batzuetan atzamarrak sudurrera eroatea.

**Aitor dezakezun bizio bat.**

Benetako bizioak ez dira aitorgarriak.

**Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?**

Bai. Kubara joango nintzateke berriro gustura.

**Orain zarena izango ez bazina, zertan gustatuko litzaizuke jardutea?**

Buff, horrenbeste gauzetan... Niretzat amorragarria da horren denbora gutxi edukitzea gauza gehiago egiteko.

**Zein da zure ametsetako bat?**

Idazle bihurtzea. Hau da, idazlea banaiz nolabait, baina esan gura dudana da *full-time* ibiltzea: horretan jardutea eta besterik ez.

**Eta irakurri duzun azken liburua?**

Momentu honetan *White City* nabil irakurtzen.

**Zer gabe ezin zaitezke bizi?**

Nire familia barik.

**Euskal Herriko zure txoko kuttuna?**

Horrenbeste daude... Santurtziko portua. ○

**LABURREAN**— Santurtziarra, 1960. urtean Barakaldon jaio zen. Komunikazio Zientzietan lizentziaturiko gaztea, Zarama taldeko abeslaria izan zen. Robertok 1977ko uda Britainia Handian fruta biltzen eman zuen, eta Londresen punkaren lehen eztearen giroa topatu ostean, izpiritu hori urte berean sortutako Zaraman islatu nahi izan zuen. Musika taldea desagertu ondoren, 2003an, *Loreak Zaraman* liburua argitaratu eta bertan taldearen ibilbide osoko gertakaririk aipagarrienak bildu zituen. Mosok hainbat liburu argitaratu ditu, prentsan idatzi du, eta gidoilari, aurkezle eta programa zuzendari moduan aritu da telebistan. Hala ere, gehienbat, irratigintzan egin du lan.

www.thebalde.net

irudi batek ez du 1000 hitz baino gehiago balio...

Irudi batek 1000 irakurketa izan ditzake

an image is not worth 1000 words...

an image is worth 1000 meanings



the balde  
aldizkaria

